


# 2019ko JARDUEREN MEMORIA



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

## AURKEZPENA



*Lehendakaria, Emakundeko zuzendaria eta idazkari nagusia.*

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2020ko abenduaren 18an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2019. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Lehenengo eta behin, barne-antolaketa deskribatzen du, eta zehazten du zein den Emakunderen zeregina, eta, horrekin bat etorritik, bi atal nagusitan egituratzen da: lehenengoak garatutako jardura jasotzen du, batez ere erakunde publikoen eremuan, politika publikoak diseinatzeko, sustatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko, horien jarraipena egiteko eta horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzen inguruko lana. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta, bestetik, gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde batzuetan profesionaltasunaren bidez memoria honetan jasotzen diren jardura guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakundeko Zuzendaritzak aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundeetan lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakustegatik.

Eskerrik asko guztioi.



# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>2</b>		
1. Sarrera: Emakunde .....	4	3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena .....	54
1.1. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Egitekoa eta antolaketa .....	5	3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren sarea .....	54
1.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua .....	6	3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk .....	56
1.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Emakunderen Plana (2018-2021) .....	8	3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena aldezteko sektore pribatuan.....	57
1.4. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana .....	8	3.4. Gizarte-sentsibilizazioa .....	58
1.5. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua .....	9	3.4.1. Nahiko programa.....	59
1.6. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana .....	10	3.4.2. Beldur Barik programa.....	60
1.7. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua.....	10	3.4.3. Gizonduz ekimena .....	61
1.8. Euskararen erabilera normalizatzea.....	10	3.4.4. Kanpainak.....	64
<b>2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EREMIAN EGINDAKO JARDUKETAK .....</b>	<b>11</b>	3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea .....	66
2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa.....	12	3.4.6. Hedabideetan agertzea .....	67
2.1.1. Administrazio autonomikoa.....	12	3.4.7. Berdintasunaren Emakunde Saria.....	68
2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa.....	17	3.4.8. Emakunderen webgunea eta sare sozialak.....	69
2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzaren.....	20	3.4.9. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan.....	69
2.2. Politika publikoen ebaluazioa .....	33	<b>4. ERANSKINAK .....</b>	<b>77</b>
2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak .....	33	1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.....	78
2.3.1. Aholkularitza juridikoa.....	33	2. ERANSKINA: Dokumentazio Zentroko kontsulten banaketa.....	81
2.3.2. Prestakuntza.....	36	3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.....	84
2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak .....	41	4. ERANSKINA: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.....	92
<b>3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK .....</b>	<b>48</b>	<b>5. ARGAZKIAK .....</b>	<b>95</b>
3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea.....	49		
3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin.....	49		
3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako dirulaguntzak .....	51		
3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak..	51		
3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza .....	51		
3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza .....	52		
3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak.....	52		
3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeak.....	54		





# 1. Sarrera: **Emakunde**



## 1.1. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. Egitekoa eta antolaketa

### Egitekoa:

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturagintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundeak, berdintasunera bideratuta balioen aldaketaren alde egiteko, bi jarduera-eremu handi ditu: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko baliabide pertsonalak eta ekonomikoak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz; bestetik, gizartearekin orokorrean lan egitea, emakumeen ahalduntzea, gizarte- eta ekonomia-eraldaketa eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko.

### Zuzendaritza-organoak:

Emakunderen jarduera gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua), honako kide hauek dituen: kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; kontseiluburuordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte-gaiak; foru- eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria. Zuzendaritza Kontseilua 2017an berritu zuten, XI. Legegintzaldiaren hasieran, maiatzaren 17an egindako bileran.



*Zuzendaritza Kontseilua.*

- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). Izaskun Landaida Larizgoitiak Emakundeko zuzendari izaten jarraitzen du XI. Legealdian, aurreko legealdian egindako izendapenari jarraikiz (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).



### Kudeaketa organoak:

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. XI. Legealdia hasita, Zuriñe Elordi Romero Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (184/2017 Dekretua, ekainaren 27koa).
- Aholkularitza bat. Karmele Jaio Eigurenek prentsa eta komunikazioko aholkulari izaten jarraitzen du XI. Legealdian, X. Legealdian izendatu zutenetik.
- Eremu funtzionalak. Emakunderen barne-antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
  - Administrazioa.
  - Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
  - Lankidetzatza instituzionala.
  - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
  - Programak eta prestakuntza.
  - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
  - Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzea.

### Koordinazio-organoak

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Emakunderen Aholku Batzordea - Emakumeen elkarteen partaidetza-organoa.
- «Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren» Jarraipen Batzordea.
- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.

## 1.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua prestatzeko prozesua mugarri izan da 2019. urtean Emakunderen lanean. Lege aldaketa 2018an abiatu zen, Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldiko konpromiso bati zein Legebiltzarreko talde politiko guztien eskariei erantzute aldera, eta, batez ere, legea onartu eta ia 15 urtera EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta horri emandako erantzun instituzionala hobetu eta indartzeko beharrezanari erantzuteko. Legea aldatuta, hain zuzen ere, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako politika eta itun handi bat lortu nahi dira, hura indartzeko eta araudiaren eta gizartearen testuinguru berriaren ondoriozko behar berrietara egokitzeko.

Hasierako bidegurutzean —hau da, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko berriazko lege berri eta bereizi bat prestatu edo indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aldatu (lege horrek dagoeneko indarkeriaren gaia arautzen du, berdintasunik ezaren gainerako adierazpenekin batera)—, bigarren legegintza-aukeraren alde egin da. Hala, 4/2005 Legea egin zenean erabilitako planteamenduari eutsi zaio: indarkeria horren erroa berdintasunik eza denez, berdintasun lege baten esparrutik heldu behar zaio. Planteamendu honen haritik, gure herriko berdintasun politikak aitzindari eta erreferente bihurtu dira, eta Istanbuleko Hitzarmenak ezarri zuenarekin lerrokatuta daude; izan ere, hitzarmen horrek eskatu zuenez, legeak egiterakoan berretsi behar da genero arrazoiaren ondoriozko diskriminazioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura, eta berdintasunerako politikak modu eraginkorrean aplikatzera behartu zituen estatuak, emakumeek generoaren ondorioz pairatzen duten indarkeria desagerrarazteko bide modura.



2017an eta 2018an partaidetza- eta kontsulta-prozesua egin ondoren, eta Lege aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean martxoaren 6an aurkeztu eta gero, honako izapide hauek egin dira 2019an:

- Informazio eta kontsulta publikoa (martxotik maiatzera).
- Kontsulta egitea Eusko Jaurlaritzako sailei eta beste administrazio batzuei (martxotik maiatzera).
- Iritziak erkatzea, Emakundera atxikitako erakundearteko eta sailarteko batzordeekin eta kasuan kasuko talde teknikoekin (ekain-uztailak).
- Nahitaezko txostenak bidaltzea Gobernuako sailei eta kontsulta organo eta entitateei (uztailetik irailera).
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena (azaroa).
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpena (abendua).



*Aurreproiektua aukezteko saioak.*

Aurreproiektua prestatzeko prozesua parte hartzailea izan da, ezin baitzen bestela izan. Lehen zirriborroari informazio publikoko izapidea aplikatu zaio eta kontsulta egin zaie Eusko Jaurlaritzako sail guztiei, hiru foru aldundiei eta EUDELi. Bigarren zirriborroak 400 ekarpen baino gehiago jaso zituen, gizarte zibiletik zein erakundeetatik; 300 ekarpen inguru gizarte zibiletik eta ehunetik gora administrazioen partetik. Partaidetza-prozesu horretan, generoan eta berdintasunean adituak diren pertsonak parte hartu dute, hala nola emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta arretan eskumena duten erakunde publikoek, elkarte feministek, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan, detekzioan eta arretan esku hartzen duten profesionalak, eragile sozialek eta

indarkeriaren biktimekin diharduten entitate eta elkarteek. Zuzeneko kanalak ezarri dira, herritarrek ekarpenak egin ditzaten; saio irekiak egin dira herritarrekin hiru lurraldeetan; dozena erditik gora aurkezpen espezifiko egin dira batzorde, talde eta kolektibo inplikatuetan, eta laguntza teknikoa eman zaie Emakundeko Kontsulta Batzordeko emakume elkarteei eta indarkeria pairatu eta bizirik atera diren emakume biktimeen elkarteei, ekarpenak egitea errazteko. Azpimarratzekoa da, bestalde, prozesua malgua izan dela epeei dagokienez eta ekarpen guztiak balioztatu direla aurreikusitako epeetan aurkeztu ez arren.



Prozesuan zehar jasotako ekarpen nagusiak modu ordenatuan jaso dira, eta Emakundek horien inguruko balorazioa egin du. Publikoki hiru dokumenturen bitartez hedatu dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektua. Gizarte zibilaren ekarpenak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektua. Eusko Jaurlaritzako Sailek eta beste administrazio publiko batzuek egindako ekarpenak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektua. Erakunde eta organo aholku-emailleek egindako ekarpenak.

Nahitaezko txostenak eta irizpenak eskuratu ondoren, emaitza gisa lortu den testuak, lehenik eta behin, emakumeen kontrako indarkeria emakumeen eta gizonen berdintasunik ezaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatu du. Legeak baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak indartzea aurreikusi du, berdintasun-politikak garatzeko, lagungarriak diren heinean berdintasun-egiturak indartzeko, langile publikoek berdintasun arloko prestakuntza nahitaez eduki behar izateko, aitatasun-baimen berdina eta besterenezinak orokortzeko, soldata-arrakalari aurre egiteko neurriak areagotzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima mota guztiei zuzendutako laguntzak zabaltzeko, eta laguntzak sortzeko epai judizialetan aurreikusitako kalte-ordainak jaso ez dituzten biktimentzat eta indarkeria matxistaren ondoriozko seme-alaba umezurtzentzat, besteak beste.

### 1.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Emakunderen Plana (2018-2021)

2018-2021erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Emakunderen estrategia zehazten du XI. Legealdirako Gobernu Programan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean emakumeen eta gizonen berdintasun-arloan ezarrita dauden konpromisoak egikaritzeko. Emakundetik bultzatutako politikak planifikatu, lehenetsi eta irisgarri egiteko tresna bat izateaz gain, aldi berean politika horiek eraginkorrak izateko eta eraldatzaile gertatzeko behar den konpromiso politikoa ere adierazten du.

2018an onartutako plana kontsultarako eskuragarri dago webgunean, eta 2018-2021 aldirako Emakunderen plangintza estrategikoa aurreikusi zuen, 2018. eta 2019. urteetarako jarduketan bi urteko plangintza berariaz zehaztuz; horren jarraipenari esker ikusten da planifikatutako jarduketan betetze-maila altua izan dela, baita esleitutako aurrekontuaren betearazpena ere.

### 1.4. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana

2019-2020 urteetarako EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek onartu zuten eta sailen artean koordinatuta garatzen da, urtarrilaren 29an eraturako sailarteko mahaiaren bitartez, Emakundeko zuzendaria ere bertan zela; plan horren esparruan, honako jarduketa hauek egin dira 2019an:

- Emakundeko zuzendaria Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren barruan otsailean eraturako Genero Berdintasunari buruzko Lantaldearen buru izan zen. Sindikatuek, enpresa erakundeek eta Eusko Jaurlaritzako sailek ordezkaria daukate lantaldean, eta helburua honako hauei heltzea da: kontziliazio erantzukidea, enpresetako berdintasun-planak, genero-berdintasuna



negoziazio kolektiboan, baita Soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana garatu eta jarraipena egiteari dagokion ere.

- Martxoan, Emakundeko ordezkari batek, zuzendaria buru, Eusko Jaurlaritzako Soldata-arrakala Murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana aurkeztu zuen New Yorken CSW63 egitasmoaren esparruan antolatutako lan topaketa batean, «Closing the genderpay gap» ekitaldiaren inguruan antolatutakoa; bertan, emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasuna lortzera bideratutako iritzi eta jardunbide egokiak partekatu zituzten gobernu zein entitate pribatu eta maila goreneko ordezkariak.

– Ekainean, Sara de la Rica Ekonomia katedradunari eskatutako «Genero arrakalak EAEko lan-merkatuan» azterlana aurkeztu zen Emakunderen egoitzan.

– Azaroan «Genero-ikuspegiko lan osasuna eta soldata-arrakala» jardunaldia ospatu zen Osalanek, Lan eta Justizia Sailak eta Emakundek antolatuta.

– BAI SAREA berdintasunerako entitateen sarearen biltzarra abenduan egin zen, eta bertan enpresetan soldata-arrakala aztertzeke jarraibideen proposamen bat aurkeztu zen; jarraibideak sare honen barruan sortutako soldata-arrakalari buruzko lantaldea osatzen duten entitateek diseinatu eta onartu dituzte.

– EAEko pentsioetan genero-arrakalari buruzko azterlana egiteko eskatu dio Emakundek Euskal Herriko Unibertsitateari, Eusko Legebiltzarrak egindako eskaeraren haritik. 2019an, emakume pentsiodunen Oneka elkartearekin, Emakume Jubilatuen eta Pentsiodunen Plataformarekin eta Emakume Alargunen Elkarten Federazioarekin elkartu zen Emakundeko zuzendaria.



«Genero-arrakalak lan merkatuan» azterlanaren aurkezpena.

## 1.5. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak araudiak eskatzen dituen dokumentuak onartu zituen 2019ko martxoaren 6ko bileran:

- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2018».
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2017.
- Emakunderen jarduketa-memoria, 2018an garatutakoa.

Saio horretan bertan, Emakunderen 2019rako Jarduketa Planaren esku-hartze ildo berri eman zen, baita aurrekontuaren berri ere; horrez gain, dirulaguntzetako eta bestelako laguntzetako deialdien izapidetze-egoera ere jakinarazi zen, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu.



## 1.6. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2019an, agerraldi bat egin da Ogasun eta Aurrekontu Batzordean, bi agerraldi Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordean, agerraldi bat Lan eta Justizia Batzordean eta agerraldi bat Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean; legez besteko sei proposamen egin dira, eta hiru mozio. Era berean, berrogeita hamahiru galderari erantzun zaie idatziz eta honako txosten hauek igorri dira Eusko Legebiltzarrak horien berri izan dezan:

- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen 2018ko Jarduera Memoria.
- Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioen arloko 2018ko Jarduera Memoria.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordearen 2018ko Jarduera Memoria.
- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifrak, 2018» izeneko txostena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko Jarduera Memoria, 2017.

## 1.7. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua

Aurrerabide proiektuaren esparruan —Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua ezartzera bideratutakoa berau—, Emakunderen Mapa Estrategikoa prestatzeko lan egin da, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin eta Euskalitekin lankidetzan. Gainera, Aurrerabide Kluba eta Kudeaketan Hobetzeko Kolaboratzaileen Sarearen bileretan parte hartu du Emakundek; eta, Q-epearen osoko saioetan eta lan-saioetan ere izan da (kudeaketako bikaintasunarekin konprometituta dauden EAEko erakundearen sarea da).

## 1.8. Euskararen erabilera normalizatzea

Euskararen erabilera normalizatzeko Plan Orokorren esparruan, Emakunderi dagokion plan estrategikoa eta kudeaketa plana prestatu eta garatu dira. Garatutako jarduketan artean honako hauek nabarmendu behar dira: Euskara Batzordearen lana, planaren jarraipena eta komunikazioa egiteko; euskararen ahozko erabileraren neurketa; Emakundeko hizkuntza-irizpide propioak eguneratzeko proiektua eta eremuz eremu egindako lana irizpide horiek ezagutzeko eta aplikatzeko; dibulgazio-buletina; langileei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak, etab. Horrez gain, euskararen erabilera EAEko administrazio publikoetako berdintasun teknikarien artean sustatzeko proiektuan parte hartu dugu, baita Korrikan eta Euskaraldiari lotutako jardueretan ere, IVAPeko Genero ikuspegia hizkuntza politikan ikastaroaren prestakuntzan, Aldahitz metodologiari buruz Kluster Soziolinguistikoak antolatutako jardueran, berdintasunari eta feminismoari buruzko euskarazko hiztegi terminologikoan, Simone de Beauvoirren Bigarren sexua liburuaren itzulpenean eta Euskara eta Generoa batzordean. Hizkuntza normalizazioko teknikariekin koordinatzeko bileretan ere parte hartu dugu, baita hizkuntza politika arloan Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordearen (HAKOBA) talde teknikoaren bileretan ere.





## 2. **Administrazio Publikoen** eremuan egindako jarduketak



Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Atal hau botere publikoen bidez egindako ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan. Sustapeneko eta koordinazioko egitura organikoaren esparruan egiten diren ekintzak bereizten ditu, aldebiko beste harreman-testuinguru batzuetan egiten direnak, eta prestakuntza eta aholkularitza, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak egitea eta abar helburu dituzten beste batzuk.

## 2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

### 2.1.1. Administrazio autonomikoa

Emakundek Sailarteko Batzordearen bitartez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna.

#### Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gauzatzen dituen jarduketak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea, Emakundeko zuzendaria. Erakundeko Idazkaritza Nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakariatzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburu batek.

Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin zuen 2019ko uztailaren 3an, eta bertan honako hau egin zen:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan Eusko Jaurlaritzak 2017an gauzatutako jardueraren jarraipenari buruzko txostena aurkeztea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketa egiteko legearen aurreproiektuaren bigarren zirriborrarako ekarpenak jaso ziren.

- Indarkeriaren aurrean EAEko erakundeen erantzunari buruzko informazioa eman zen. Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako sailtetako XI. Legegintzaldirako lehentasunezko ekarpenak.
- Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako sailen XI. legegintzaldirako lehentasunen egoeraren berri eman zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat, Batzorde honek Sailarteko Talde Tekniko bat du, eta horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Sailarteko Talde Teknikoa, eta sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen dio, sail arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu.

Aholkularitza eta informazioko lanean, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindako kontsultei erantzun zaie. Halaber, lankidetzan aritu da proiektu zehatzak gauzatzeko; batez ere, materialak berrikusteko eta



prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintzak abian jartzeko proiektuetan. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

Hauk dira Emakundek Sailarteko Talde Teknikoaren alorrean 2019. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bileraren berri eman du.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketa egiteko, legearen aurreproiektuaren lehen zirriborrarako ekarpenak jasotzeko prozesua bideratu eta sustatu du.

2019an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen esparruan, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Sailarteko Batzorde Politiko bat eratu da, Emakundek bultzatuta; irailaren 25ean egin zuen bilera. Bilera horrek bi helburu nagusi izan zituen; batetik, «Eusko Jaurlaritzak emakumeen kontrako indarkeriari ematen dion erantzuna. 2018ko datuak» dokumentua onartzea eta, bestetik, Europako Kontseiluaren mendeko GREVIO Emakumeenganako eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Adituen Taldearen ebaluazio bisita prestatzea. Horren aurretik, irailaren 18an, aipatutako batzordearen mendeko Sailarteko Talde Teknikoa bildu zen, helburu berdinekin.

Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Sailarteko Talde Teknikoak 2019ko urriaren 1etik abenduaren 30era egindako lana lerrotuta zegoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin, Estatu Itunarekin, Istanbulgo Hitzarmenarekin eta Euskadi Basque Country Agendarekin. Taldeak osoko bi bilera egin ditu, eta talde txikiagoetan, berriz, lau bilera.



Sailarteko Batzordea.

Lan-prozesu horren fruitu, egoerari buruzko txosten bat prestatu da, eta, haren edukien artean, tresna juridiko horiek modu bateratuan ezartzeko dokumentu eragilea bat ere jaso da.



### Sailek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako planak

4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-planari buruzko txostenak egin behar ditu Emakundek, txosten horietan adierazteko ea planen edukiak Gobernuaren Plan Orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren.

Horren haritik, 2019an berdintasunerako 7 planen txostenak egin dira Eusko Jaurlaritzako sailen XI. legegintzaldiari dagokionez.

### Beste sail eta entitate batzuekin egindako proiektuak eta lankidetzako

**ildoak** Sailarteko Batzordearen esparruan eta Sailarteko Talde Teknikoan egiten den lanaz gain, Emakundek alde biko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakundeekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2019. urtean, kolaborazio hauek nabarmendu behar dira:

- Lehendakaritzarekin lankidetzan jardun dugu EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Eragilea diseinatzeko eta ezartzeko.
- Era berean, Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordean, Bake eta Bizikidetzako Planari buruzko Sailarteko Batzordean eta Aholku Batzordean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartu dugu.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan jardun dugu Basque Country Estrategia garatzeko.
- GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari dagokionez, haren Zuzendaritza Kontseiluaren gaude.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin batera lanean aritu gara, Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean parte hartuz.

- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailarekin jardun dugu Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan eta Familiaren Euskal Kontseiluan. Orobat, EAEn haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko txostena prestatzeko hausnarketa-taldearen lan-saioetan ere parte hartu dugu.
- Ogasun eta Ekonomia Sailarekin, era berean, genero-ikuspegia EAeko aurrekontuetan sartzeko kolaboratzen jarraitu dugu. Eusko Jaurlaritzako sail guztietako berdintasuneko administrazio-unitateek ere parte hartu dute horretan. IVAPEk urtero eskaintzen duen genero-ikuspegidun aurrekontuei buruzko lantegian ere parte hartu dugu. Emakundek eta IVAPEk elkarrekin diseinatutako lantegia da.
- Hezkuntza Sailarekin batera, euskal hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren jarraipenean esku hartu dugu: Jarraipen Batzordean zein Batzorde Teknikoan parte hartu dugu, eta, horrez gain, interesa agertu duten ikastetxeei Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eman diegu doan<sup>1</sup>.
- Lan eta Justizia Sailarekin jardun dugu Justiziaren Plan Estrategikoaren esparruan eratutako intereseko taldeetan, 2020-2025 plangintza estrategikoa prestatzeko.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean aritu gara Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrean, eta euskaraz berdintasunaren eta feminismoaren arloan hiztegi terminologikoa egiteko lan-proiektua garatzen jarraitu dugu.
- Gazteria Zuzendaritzarekin, Gazte Planaren Sailarteko Batzordean parte hartu dugu, gazteei zuzendutako berariazko ekintzak gehituz, baita Beldur Barik programa ezartzeko aholkularitza eta laguntzaren bitartez kolaboratuz ere.

1. Ver detalle de estos programas en 3.4.1. y 3.4.2.



- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin profesionali zuzendutako jardunaldi bat antolatzen kolaboratu dugu, kirol-erakundeetan berdintasuna lantzeko; Donostian egin zen urriaren 22an, «*Berdintasuna eta kirola jardunaldiak: kirola, ahalduntzerako gune bat*» izenburupean.
- Osasun Sailarekin batera, kolaboratzen jarraitu dugu Zuzendaritza Batzordearen eta osasun batzorde teknikoaren bitartez politika guztietan, Emakundek arlo horretan egindako jarduera guztien txostena aurkeztuz; horrez gain, erakundearteko mahaian ere parte hartzen dugu, nahasmendu mentalak dituzten pertsonen estigmari heltzeko.
- Eustat Euskal Estatistika Erakundearekin kolaboratzen jarraitzen dugu, Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartuz.
- Osakidetzarekin elkarlanean jarraitu dugu, erakundean eta zerbitzu-prestazioan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana gauzatzen hasteko aholkularitza emanez. Era berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde ordezkarietzako langileei berdintasuneko oinarrizko prestakuntza irakasteko kolaboratu dugu.
- Osalanekin, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hitzarmenaren barruan, informazioa trukatzeko jarduketak, koordinazio eta lan bilera bat egin da. Era berean, laneko osasunari buruzko jardunaldi bat antolatzen lagundu dugu, non Lan Ikuskaritzak ere parte hartu duen.



Osasun Plana 2013-2020.



Osalan eta Lan Ikuskaritzarekin Jardunaldia.



- Lan Zuzendaritzarekin, Lan Zuzendaritzaren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hitzarmenaren barruan, informazioa trukatzeko jarduketak, koordinazio eta lan bilera bat egin da.
- Gazteen Euskal Kontseiluarekin, dirulaguntza izendun baten bitartez, teknikoki eta ekonomikoki elkarlanean aritu gara, genero-ikuspegia txertatzeko funtzionamenduan eta bi erakundeen artean lankidetzaren egonkorreko esparrua ezartzeko. Hori guztia, 2014an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Kontseiluak onetsitako legez besteko proposamenari erantzuteko; bertan, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazte Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkorrean eta etengabe berdintasunaren arloan, erakunde horrek osorik ekiteko genero-ikuspegiari jarduketa guztietan. Beldur Barik kanpaina ezartzen ere kolaboratu dugu.

### Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala geratzen da ezarrita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean. Zortzigarren xedapen gehigarria betetzeko, Gobernu Kontseilua da aipatutako ebaluazioa egiteko gidalerroak onesten dituen. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Sailetan generoaren araberako eraginaren txostenak egoki egiten direla egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko Emakundek 2007an hasi zuen lanari dagokionez, 69 espediente jaso eta aztertu ditu 2019an. Hurrengo taulan, urtez urte izandako bilakaera ageri da.

### 2006-2019 DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
2018	7	37	23	0	67
2019	12	43	14	0	69
<b>Guztira</b>	<b>142</b>	<b>730</b>	<b>467</b>	<b>32</b>	<b>1.371</b>

### Gizonen eta emakumeen berdintasunerako erakunde publikoen sarea

Lan-saio bat egin da Gizonen eta emakumeen berdintasunerako erakunde publikoen sarean parte hartzen duten entitateekin; saio horretan adostu da Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaileen Sarearen bitartez laguntzen jarraitzea, aurrera egiteko Emakunderen aholkularitzarekin, berdintasun-ibilbideetan.



### 2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

#### Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Batzordea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren bidez arautua, administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita, zuzendaria da buru eta euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak zati beretan eratzen dute.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketa egiteko legearen aurreproiektua prestatzeko kontsulta egin zitzaion Erakundearteko Batzordeari.

Erakundearteko Batzordea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera, batzorde honek Erakundearteko Talde Tekniko bat du eta hark gaia aztertu, txostenak osatu eta proposamenak egiten ditu, eta laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen dizkie batzordekideei, autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginen. Talde hau behin bildu da 2019an.

Halaber, Erakundearteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2019an:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, dirulaguntza eta kontratuaren berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.** 2019an, lantalde hori behin elkartu da «*Genero-ikuspegia kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan txertatzeko gidaliburua*» eguneratzeko eta Kontratazio Publikoari buruzko Lege berrira egokitzeko prozesua sustatzeko. Gainera, aipatutako gidaliburuaren eguneratzeetik abiatuta, Emakunderen webgunean kontratuaren eta dirulaguntzetako berdintasunari buruz dagoen atalaren edukia aztertu da, atal horretako edukia birbanatu eta osatze aldera, eguneratzeko eta eskuragarriago egiteko xedez.

- **Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzea eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.** 2018an kalitate estandarrak definitzeko lan egin ondoren, 2019an erakundeen arteko koordinazioa hobetzeari lotutako lanari ekin zaio, bereziki toki-esparruko esku-hartzeetan.
- **Berdintasuna inbertsioko eta egiturako funts europarretan.** Programa operatiboaren egoeraren jarraipena egin da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipio horizontala betetzeari dagokionez (indarguneak eta hobetzeko alderdiak) eta, bereziki, programa horien komunikazio-estrategiei dagokienez.

Bestalde, EAEko udalenzako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana egin da.

Sailarteko Batzordearen esparruan egindako lanaz gainera, Emakundek udalenzako beste lankidetzako eta laguntza-ildo batzuk ditu.

#### Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako EAEko udalen sarea

Emakunderen bultzadarekin sortu zen sare hori, eta 2005ean EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzako hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek konpromisoa hartu zuen sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartzeko, eta EUDELekin konpromisoa hartu zuen sarea eratu eta kudeatzeko, baita hura garatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko ere.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dute, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana



egitean, Jaurlearitzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.

- Osoko Bilkura Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatzen dute, baita Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen diren teknikariek eta Emakundeko teknikari batek ere.



*Berdinsarea Jarraipen Batzordea.*

Hauek izan dira, zehazki, 2019an Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELekin sinatutako hitzarmena berri du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu du, eta hartutako erabakien jarraipena egin; nabarmentzekoa da Berdinsarera gehitzeko irizpideak eguneratzeko lana.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu, eta onartutako akordioen jarraipena egin du.
- Talde eta proiektu hauetan jardun du:
  - Emakume politikarientzako eskola, Virginia Woolf Basqueskola.
  - Emakumeen aurkako Indarkeria Batzordea, «Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak. Udalerrietan erreparazio-printzipioa aplikatzeko gida didaktikoa» dokumentua prestatzeko.
  - Komunikazioa hobetzeko taldea.
  - Berdintasunaren aldeko gizon hautetsien taldea.

### **Populazio txikiagoko udalerriei zuzendutako laguntza, berdintasun politikak garatzeko**

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak–.

Horregatik, 2011tik Emakundek eta EUDELek kolaborazio hitzarmenak sinatu dituzte, populazio txikiagoko udalek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikak martxan jar ditzaten, Berdinsarearekin koherentea izango den estrategiarekin bat etorri eta epe ertainean sare horretara sartu ahal izateko beharrezko baldintzak sortzen ahalegintzeko.



### Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten

Dirulaguntzen deialdia Emakundek udalerriei laguntza teknikoa emateko erabiltzen duen beste tresna bat da. Tokiko erakundeei ematen zaizkie dirulaguntza horiek, emakumeek eta gizonak udalerrietan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EA Erako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz. 2019an egindako deialdian kopuru ekonomikoa 360.000 eurokoa da, eta 37 proiektu diruz lagundu dira; proiektu horiek 32 udalerrri eta 3 mankomunitate, kuadrilla eta/edo multzorenak dira<sup>2</sup>.

### Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek foru- zein toki-administrazioen berdintasun-planak buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezten: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, tokiko erakundeetan berdintasuna sustatzeko 11 planen gaineko txostenak egin dira. Hurrengo taulan datoz zehaztuta.

Lehen Planak	Bigarren Planak	Irugarren Planak	Laugarren Planak
Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Plana (2019-2022)	Bermeoko emakumeen eta gizonen berdintasun egoeraren diagnostikoa eta Berdintasunerako II. Plana (2019-2022)	Astigarragako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2023)	Abanto Leioan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2019-2022)
Hondarribian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2020-2023)	Segurako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2019-2023)	Galdakaoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019-2023)	Ugaon Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2018-2022)
Iurretako Berdintasunerako I. Plana (2019-2023)		Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalen eta Mankomunitatearen Berdintasunerako III. Plana (2019-2023)	
Emakume eta Gizonen berdintasunerako I. Plana Maruri-Jataben (2018-2022)			

Foru- eta toki-administrazioen esparruan **beste lankidetzak** dira aipatzekoak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Behatokian parte hartzea;
- Hiru foru-aldundiekin kolaborazio hitzarmenak sinatzea, Beldur Barik programa kudeatu eta kofinantzatzeko.



- Parte-hartze prozesu bat garatzea, lurralde eta hirigintza planen genero eraginaren aurretiko ebaluazioak egitera berariaz bideratutako gida bat prestatzeko.

### 2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak

Alde batetik, administrazio autonomikoarekin duen harremanaz gainera, eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekin duenaz aparte, Emakunde gure gizartea osatzen duten beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinazioan jarduteko eta parte hartzeko egitura egonkorrak ditu.

#### **Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea**

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundearteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jardura-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalak erabili behar dituzten jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere esparruan egin behar duen lanerako, bai erakundearen arteko harremanetarako. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko

Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako eratuak Batzordeak edo Erakunde arteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera gaiak aztertzeko. Gaur egun, funtzionamenduan dauden taldeak harrera-baliabideen gaineko taldea eta informazio sistema-taldea dira.



*II Akordioaren Jarraipen Batzordea.*



Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko EAEko II. Erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak bilkura egin zuen uztailaren 5ean, 2019ko ohiko saioari dagokiona, Emakundeko egoitzan.

Horrez gain, batzordeak ezohiko bilera ere egin zuen 2019ko irailaren 30ean, Europako Kontseiluaren mendeko GREVIO Emakumeenganako eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Adituen Taldearen ordezkariak batek bisita egin baitzuen EAera. Bileraren helburua estatuko txostenean gehitutako informazioa osatzea zen, Istanbulgo Ituna ezartzeari dagokionez (Etxeko indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeria saihestu eta horri aurre egiteko Europako Kontseiluaren ituna).

### Erakundearteko Talde Teknikoa

II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren (ETT) lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 2 bilera egin ditu 2019an.

Maiatzaren 28an bilera bat egin zen, eta bertan Emakundek EDEKArekin batera egin den behin betiko gida aurkeztu zuen; EDEKAK EAEko desgaitasunaren esparruko hirugarren sektore sozialeko erakundeak ordezkatzeko ditu. Gida hau dokumentu praktiko eta azkarra da, eta bertan biltzen dira aniztasun funtzionala duten biktimei lehen harrera egiteko gomendioak; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalak dago zuzenduta. Bestalde, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektuaren» zirriboroko aurrerapenen inguruko zenbait gai azaldu zituen Emakundek (aurrekariak, erronken identifikazioa, kronograma eta helburua, besteak beste). Azkenik, aurkezpena egin ondoren, legearen VII. kapituluari buruzko eztabaidari heldu zitzaion, emakumeen kontrako indarkeria matxistari eskainitakoa; II. Erakundearteko Akordioaren ETT taldearen ekarpenak jasotzea zen asmoa.

Aurrerago, ekainaren 25ean, ETT taldearen bigarren bilera egin zen; bertan, ordura arte jasotako ekarpenak eztabaidatu eta «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektuaren» zirriborroaren edukari egindako ekarpen berriak jaso ziren.

### Informazio Sistemen Taldea


2019ko azaroaren 6an II. Erakundearteko Akordioaren Informazio Sistemen Taldeak urteko lan-saioa egin du, eta bertan bildutako datuen berri eman du; hausnarketa bateratua egiteko oinarri gisa hartu da. «EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren azterketa eta interpretazioa. 2018ko datu estatistikoak» txostena aurkeztu da, batez ere Segurtasun Sailak emandako datuei dagokionez. Horrez gain, emakume biktimei emandako arretari buruzko datu-bilketaren analisi-txostena ere aurkeztu da: «EAEko emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean eman den erantzuna. 2018ko datuak». 2019an adierazle berriak sartu dira aplikazioan, indarkeria arloko gastu eta aurrekontuari dagokionez, emakume biktimak artatzen dituzten profesionalen kopuruari dagokionez, langileen prestakuntzari dagokionez eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainari dagokionez. Baliabideen kalitatearen gaineko datuetara gerturatzeko lehen ahalegin honi esker, aldi berean, GREVIOren esparruan sortutako gaiari erantzuna eman ahal izan zaie, baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketak ekarriko duen inbertsio-igoera baloratzea ere. Aipatutako bi txostenak Emakunderen webgunean daude argitaratuta.

Datuak bildu eta aztertzeke lan horren barruan, berriazko hainbat aurkezpen – laburpen prestatu dira: «Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Eusko Jaurlaritzak eman duen erantzuna. 2018ko datuak» txostena Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Sailarteko Batzorde Politikoaren lehen bileran aurkeztu zen, Emakundek irailean deitutakoa. Horrez gain, «Eusko Jaurlaritzak



eta Foru Aldundiek EAEn ematen duten erantzuna, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean. 2018ko datuak» aurkezpen laburpena ere prestatu da.

Orobat, 2019ko uztailaren 5ean, emakumeen kontrako indarkeriari arreta emateko baliabideak geokokatzeke mapa aktibo bat aurkeztu zuen Emakundek. Mapa Emakundeko webgunean dago argitaratuta, eta emakume eta adingabe biktimei arreta emateko eskaintza publikoari buruzko informazioa biltzen du. Informazioa udalerrika, erakundeka eta baliabide bakoitzak emakumeei ematen dien laguntza motaren arabera sailkatu da: segurtasuna, informazioa eta orientazioa, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoa, bizitegi- edo etxebizitza-laguntza, osasun-laguntza, ahalduntzea eta beste batzuk. Etxeko tratatu txarren eta



**Recursos y Servicios**

- Seguridad
- Información
- Juzgados
- Atención jurídica
- Atención psicológica
- Recursos residenciales
- Apoyo económico
- Atención sanitaria
- Empoderamiento
  - Escuelas de empoderamiento
  - Casa de las mujeres
  - Asociaciones de mujeres
- Otros

900 840 111

Servicio de Atención Telefónica 24 horas a las Mujeres Víctimas de la Violencia contra las Mujeres

Listado de Recursos y Servicios en tu municipio

Este mapa recoge los recursos y servicios al alcance de las víctimas de violencia contra las mujeres, y se refiere a la oferta pública de atención a las mujeres y menores víctimas. La información está clasificada en función del tipo de apoyo que ofrece cada recurso: seguridad, información y orientación, atención psicológica, asistencia jurídica, apoyo económico, apoyo residencial o de vivienda, atención sanitaria, empoderamiento y otras.

Especifica un municipio

Ver todos los recursos consultados

Baliabideak geokokatzeke mapa.

sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak egindako bilera aurkeztu zen.

### Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako erakundearteko beste lankidetzatza-prozesu batzuk

#### Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak.-

Emakundek buruzagitzatza- eta koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneousatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu, eta aholkularitza eskaintzen du, toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, hala eskatzen badute. Aurten Gorbeialdeko eta Arabako Lautadako kuadrillei eskaini zaie aholkularitza. Gorbeialdeko Kuadrillaren kasuan, zenbait eragilerek bitartekaritza-lana egin du Emakundek, egoera desblokeatu eta «Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko koordinazio-protokoloa» sina dadin lortzeko. Halaber, polizia-arloarekiko koordinazioa hobetzeko esku-hartzeak ere egin dira, Errenteria eta Oiartzungo jarduketa-protokoloei dagokienez.

#### Genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeke prozedurak.-

2019an Emakundek gidatutako hausnarketa-prozesu bat jarri da abian, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeke prozedura estrajudizialei dagokienez (titulu gaitzailea), inplikaturako hainbat erakunderen kolaborazioarekin (udal gizarte-zerbitzuak, EUDEL, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Lanbide eta Emakunde), ebatzi beharreko zailtasun eta gai praktikoak mahai gainean jartzeko, prozedura estandarizatu bat adoste aldera. Aipaturakoa 2018ko abuztuaren 8ko Errege Lege Dekretuak ekarri zuen, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premia neurri buruzkoa; biktima-izaera egiaztatzeke gaitutako organismoak areagotu zituen, gizarteko eta laneko eskubideen esparruan, Gizarte Segurantzari eta laneratzeko eta gizarteratzeko programei dagokienez; gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenei baliagarritasuna eman zitzaion.



Bi saio parte-hartzaile egin ziren ekainaren 28an eta urriaren 9an, eta, ondoren, azaroan, bukatutzat jo da hausnarketa-prozesu honen lehen urratsa, udal gizarte-zerbitzuen parte-hartzearekin; genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzko ondorioen txostenean bildu dira proposamenak.

**Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM).**- 2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) osotara aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erauzketa hori emakumeen aurkako indarkeria-mota bat baita.

2014. urtean EAEn egindako Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta Euskal Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMri aurrea hartzeko osasun- eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalek osatutako osasun-taldeak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzagune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzailezako profesionalek osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2019an ere Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Gainera, bosgarren urtez jarraian, Emakundek bat egin du Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako informazio- eta sentikortze-ekintzak «areagotzeko» NBEK egindako eskaerarekin, ekintza horren aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

**Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa.**- Gizakien salerosketari aurre egiteko, Askabide erakundearentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, ostatu duina eta segurua emateko, bai eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktime diren emakumeei arreta osoa

kudeatzeko ere. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktime izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.



Salerosketa-Mahaia.





*Salerosketari buruzko Prestakuntza-jardunaldia.*

Gainera, Emakundek bultzatu eta koordinatzen duen Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketari buruzko mahaiak bi osoko bilera egin ditu; mahai horretan parte hartzen dute, Emakundez gain, Segurtasun Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko

Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lana eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, hiru foru-aldundietako Adingabeen zerbitzuak, eta Espainiako Gobernuak EAEn duen Ordezkaritzako, Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta hamaika GKEtako ordezkariek, tartean Cáritas, CEAR Euskadi, Munduko Medikuek, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Askabide, Oblatas eta Accem.

Lehenengo osoko bilera 2019ko ekainaren 10ean egin zen, eta bilera horretan Carmen Meneses doktoreak «*Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa Euskadin*» azterlan diagnostikoa aurkeztu zuen, Emakunderentzat prestatutakoa, Comillasko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitateko ikerketa-talde baten kolaborazioarekin.

2019ko abenduaren 13an bigarren osoko bilera egin zen, Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia buru zela; 2020. urterako lan-plangintza adostu zen bertan. Lan-plangintza horretan nabarmendu dira prestakuntzan sakontzea, lantaldeak sortzea, informazio- eta prestakuntza-materialak sortzea, adierazle komunak multzoa diseinatzea eta egoitza- eta anbulatorio-baliabideei ekonomikoki laguntzen jarraitzea, besteak beste.

Horrez gain, salerosketa-mahaiaren ekintza-planaren parte modura, 2019an, abenduaren 16an Emakundek prestakuntza-jardunaldi bat antolatu zuen Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, «*Euskadin salerosketa-egoeran dauden emakumeen nazioarteko babesaren arloko erronkak*» izenburupean; mahai osatzen duten erakunde guztiei zuzenduta zegoen, eta beste erakunde interesdun batzuei parte hartzeko gonbidapena egin zitzaie, hitzaldi teorikoak aurkezteko jardunaldiaren zatian. Hizlari gisa parte hartu zuten artean aipatu behar ditugu Patricia Bárcena García, CEAR-Euskadiko zuzendaria (Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea); Ane Garay Zarraga, CEAR erakundearen «*Euskadin salerosketa egoeran dauden emakume eta neskatuei babes eraginkorra ematerantz aurrera egiteko erronkak, nazioarteko babesaren ikuspegitik*» txostenaren egileetako



bat; eta Carlos Arévalo Villar, abokatua eta koordinatzailea Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimei arreta emateko Afrodita programan eta Mestura GKEen, baita sexu-salerosketaren aurkako Galiziako sarearen bozeramailea ere.

Azkenik, nabarmendu behar da Emakundek 6 pertsonarentzako lekua duen etxebizitza bat prestatu duela 2019an; Ertzaintzak berriaz egindako txosten batean proposatutako segurtasun-neurriak fditu etxebizitza horrek, eta sexu-esplotaziorako salerosketen biktima izan diren emakumeentzat eta haien seme-alabentzat erabiliko da.

**Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan.** - Emakundek genero-indarkeria koordinatzeko probintzia mailako batzordeen bileretan parte hartu du, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuetan; azken kasu horretan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Gipuzkoako genero-indarkeria koordinatzeko probintzia mailako batzordearen lantaldeen bileretan ere parte hartu du 2019an.

### **Emakunderen Aholku Batzordea - Emakume elkarten partaidetza-organoa**

Luze-zabal onartuta dago Emakumeek berek politika publikoen diseinuan parte hartzeko premia. Horregatik, emakumeen elkarten sarea sustatzea eta sendotzea da Emakunderen lehentasunezko jarduera-ardatzetako bat; hartara, emakumeek berdintasun-politiken diseinuan eta erabakiak hartzeko prozesuetan esku har dezaten esparru publiko guztietan. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren fruitu, Emakunderen Aholku Batzordean elkarteek gero eta ekarpen gehiago egiten diete gizarte berdinzaleago bat lortzeko sentsibilizazio-prozesuak eta behar diren gizarte-aldaketak bultzatzeko.

2019an, Aholku Batzordeak jarraipena eman die solasaldi- eta komunikazio-organoaren ohiko zereginei EAEko elkarten mugimenduarekin, eta sendotu

egin da, aurreko urtean bezala, prestakuntza-saio eta lurraldeko kontsultarako azpibatzerdeen esparruan solasaldi soziopolitikorako laguntza-saioen bidez.

Emakundek emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen aurreproiektuari buruzko aurkezpena egin du Aholku Batzordean, eta, ondoren, lurralde bakoitzean eztabaidak izan ziren, emakumeen elkarte sozialen ekarpenak gehitze aldera.

Emakundek, bestalde, Aholku Batzordeak EAEko administrazio publikoen maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkartza izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.



Aholku Batzordea.



Emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatu, taxutu eta sendotzeko lan egiten du Emakundek. Esparru horretan elkarrekin lan egiten dugu lurralde-eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak dira sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea.

Emakunderen Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarlanaren kultura eratazeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira, eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez. 2019an berrogeita hamar bileratik gora egin dira hiru lurraldetan, eta lurraldearteko lau bilera; 2019an garatutako komunikazio planaren barruan, besteak beste ikus-entzunezko bat ere prestatu da, elkarten ordezkariak protagonistatzat dituen, Aholku Batzordearen solasaldi soziopolitikoa indartzeko eta sare sozialen bitartez ikusarazteko.

### **Begira – Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea**

1998an sortu zen Begira, Emakundera atxikitako batzorde gisa; hasierako helburua publizitatearen esparruan emakumeen eta gizonen artean berdintasun erreala eraginkorra lortzea zen, eta, ondoren, 4/2005 Legean ezarritakoa betez, baita komunikabideen esparrura ere zabaltzeko. Batzorde berria ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuan arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan ez adieraztea pertsonen giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela sexu batekoak direlako edo bestekoak direlako; ez agertzea objektu sexualtzat, eta bermatzea ez dela egongo edukirik emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duenik. Bestalde, bi sexuen irudi berdinezalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanonik eta sexu-estereotiporik gabekoa sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan

duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukia.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako keak jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.

Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Institutuzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarteko, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarte ordezkariek. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonen osatzen dute batzordea.

2019an, Begira batzordea urtarrilaren 30ean elkartu zen, hobetzeko eremuak ekiteko, 2013-2017 aldian Begiraren jardura ebaluatzeko txosten batetik abiatuz.

Lan bilerekin gain, hona hemen aztergai dugun urtean aurrera eramandako jarduketaren garrantzitsuenak:

- Aholkularitza ematen eta txosten eta gomendioak egiten jarraitu da, genero-ikuspegitik, publizitate- eta informazio-edukiei buruz.
- Batzordea osatzen duten pertsonen lankidetzarako online plataforma administratzen eta dinamizatzen jarraitu da, Begira espazioarekin Emakunderen webaren esparruan, baita sare sozialetan eta Begira App mugikorreko aplikazioan ere.



- EAEko publizitate eta komunikazio sexistari eta BEGIRAren jarduerari buruzko 2018ko urteko memoria prestatu, editatu, onartu eta zabaldu da.

Begira Batzordea sortu zenetik, bere proiekturik nabarmenena izan da espazio partekatu bat sortzea komunikabideekin eta publizitate-agentziekin, kode deontologikoa eta autorregulazio-kodea egiteko lankidetzaren prozesu batean. Prozesu hori 2014an hasi eta 2015ean amaitu zen. Kode deontologiko bat eta autoerregulazioko kodea eta bi dekalogo egin ziren, hainbat parte-hartzaileekin: bata, komunikazioaren arlorako eta, bestea, publizitatekoa. Aurkezpen eta atxikimenduaren ondoren, 2016an kodea ezartzea sustatu zen sare bat sortu, kudeatu eta dinamizatuta, aipatutako sarea ezagutzeko gunea izateko. EAEen publizitate eta komunikazio ez-sexista izateko Kode Deontologiko eta Autorregulaziokoari atxikitako erakundeen Begira Sarea izenekoa da.

2019an zehar lau jardunaldi planteatu dira, aurten emakumeen kontrako indarkeriari erreparatuz, hausnarketa errazteko eta tresnak artikulatzeko:

- Apirilaren 2ko jardunaldian «*EAEen genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen informazio-tratamenduaren azterketa (2015-2017)*» azterlana aurkeztu dute Ainhoa Novok eta Simón Peñak. Jardunaldi horretan bertan, Isabel Mastrodoménicok «*Rolek eta estereotipoek berdintasunik eza eta indarkeria sortzeko elementu gisa duten tratamenduaren azterketa publizitatean*» hitzaldia eskaini zuen.
- Ekainaren 27an egindako jardunaldiak «*Testuingurua eta enpatia: bi erronka erabakigarri indarkeria matxisten inguruan informatzeko*» gaia izan zuen hizpide June Fernándezen eta Norma Vázquezen eskutik. Era berean, Kalitate Lantaldea aholkularitza enpresak irudi-banku nagusien edukien analisia aurkeztu zuen, genero-ikuspegitik egindakoa.



Begira Jardunaldia.



- Irailaren 26ko jardunaldian emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuen berri ematerakoan muga juridikoak zein diren erantzuten saiatu ginen, Ixusko Ordeñana Gezuraga eta Lucia Martinez Odriozolaren laguntzarekin.
- Urriaren 22ko jardunaldian Yolanda Domínguez izan dugu gure artean, eta «*Begirada kritikoa publizitatean estereotipo sexistak hausteko*» hitzaldia eskaini zuen.

Horrez gain, sarearen jarraipen-taldearen bi lan-bilera egin dira, hain zuzen ere otsailaren 13an eta maiatzaren 9an.

Azkenik, BEGIRAK hala eskatu dioten era guztietako erakundeei informatzen eta aholkuak ematen jarraitu du, beren komunikazio- eta publizitate-jarduerak egokiago egin ditzaten.

### **Kexen espedientei buruz BEGIRAK 2019an egindako ekarpenak eta kontrastea**

2019an 34 kexa-espediente eta aholkularitza-kontsulta izapidetu dira; hala ere, jasotako kexa kopurua 54koa izan da, espediente batean 20 eskaera metatu baitira.

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 19 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi. Aldeek kode deontologikoa eta bi dekalogoak aplikatzea dute oinarri gomendio horiek. 12 eskaera bideratu dira, batez ere Madrilgo Emakumeen Irudiaren Behatokia eta Galiziako Xuntako Berdintasun Idazkaritzara ere. Kasu bat EAEko Fiskaltzara iritsi da, biktima adingabe baten intimitate-eskubidea urratu izana posibletzat jo baita.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honako hau da, oro har: emakumea, 31 urtetik 40 urtera bitartekoa, unibertsitate-ikasketaduna eta lanaldi osoko lanpostua duena. Profil hori bera ageri zen aurreko urteetan ere.

Kexa motaren arabera (publizitatea edo komunikazioa), gehiago dira publizitatearen arloko kexak komunikazioaren arlokoak baino: 24 eta 10 dira, hurrenez hurren. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean, eta neurri txikiago batean, emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako jarrerak edo jokabideak justifikatzearen gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzearekin lotutako kexak helarazi dira.

### **Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun-erakundeak, nazioarteko instituzioak**

**Unibertsitateak:** Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako «*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean*» laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzarako dirulaguntza izendunaren eta irakaskuntzaren parte-hartzearen bidez eta Emakunden praktikak egiteko erraztasuna emanez zehaztu da.

EHUrekin 2018an sinatutako lankidetzako hitzarmenaren esparruan, prestakuntza-ekintzak eta berdintasun-politikak elkarrekin sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko online ikastaroaren 4 edizio egin ditugu, eta beste 4 gizonei, berdintasunari eta maskulinitatei buruzko ikastaroari dagokionez.

EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin kolaboratzen jarraitu dugu, kasu errealak, ezagutzak eta esperientziak eskainiz, ikasleek prestakuntza praktikoa eskura dezaten diskriminazioaren aurkako legediari eta berdintasun-eskubideak defendatzeari dagokienez.

Halaber, Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofizialaren garapenean ere jardun dugu lankidetzan, 2019-2020 ikasturtean, ikasleentzako 14 bekaren bidez. Horrez gain,



Emakundeko emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko atalak ere parte hartu zuen ikasleei 4 orduko prestakuntza-saioa irakatsiz 2019ko urriaren 3an.

Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan aritu da Emakunde: 2019. urterako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk babestu ditu. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeek hainbat eremutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur egungo neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.

**Estatuko berdintasun-erakundeak:** Berdintasuneko Sektore biltzarraren bi bilereetan parte hartu dugu 2019-04-03an eta 2019-10-17an; Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek emakume eta gizonen berdintasun-politikaren inguruan lankidetzan jarduteko organoa da.

Lan eremu horretan, autonomia erkidegoetako lantaldeak deitutako saioan parte hartzen jarraitu dugu. Saio hori genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzeko sistemak abian jartzea ahalbidetzen duten oinarizko prozedurei buruzkoa izan zen, 1/2004 Lege Organikoaren II. Tituluko II. Kapituluaren aitortutako eskubideen ondorioetarako, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren 63. neurrian aurreikusitakoa garatzeko. Hain zuzen ere, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko 2018ko abuztuaren 8ko Errege Lege Dekretuak (Estatu Itunaren 63. proposamenean jasota) beharrezko neurriei ekin zien biktima izaera egiaztatzeko gaitutako organismoak gehiago izateko, lan- eta gizarte-eskubideen esparruan, Gizarte Segurantzako eskubideen esparruan eta laneratze- eta gizareratze-programetan, baliagarritasuna emanez gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenei; bestalde, bertan behera utzi da izaera egiaztatzeko alde zuzeneko salaketa, babesteko agindu edo epai zigortzailea edukitzeko baldintza.

Gai horri dagokionez, 2019an Emakundek Berdintasuneko Sektore Batzordean parte hartu du (Arloko Batzarraren lan- eta laguntza-organo orokorra da),

baita titulu gaitzaileari buruzko lantaldean ere. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzan hainbat bilera izan dira, maila politiko eta teknikoan, eta bertan autonomia erkidego guztietako ordezkariek parte hartu dute. Helburua genero-indarkeriaren biktima izaera egiaztatzeko eredu bat sortzea izan da (titulu gaitzailea), komuna autonomia erkidego guztietan, eta autonomia erkidego bakoitzeko organismo, baliabide eta zerbitzu gaitzaileen zerrenda prestatzea.

Bestalde, Presidentetza, Gorteekiko Harreman eta Berdintasun Ministerioaren mendeko Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak eskatuta, Emakundek aditu mailako aholkularitza eskaini du estatu mailan emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak biltzeko aplikatiboa hobetze aldera. Beharrezko probak eta gomendioak egin ziren.

**EBko erakundeak eta Europa maila:** Arlo honetan honako jarduketa hauek egin dira:

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluaren esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Task Force bat (lantaldea) sortzea sustatu da, eta EAEk gidatuko du.

Lituanian aurkezpen-jardunaldian parte hartu da, baita ondoren Genero Berdintasunaren Europako Institutuak (GBEI) diseinatutako tresnak probatzeko prozesuan ere, Inbertsio eta Egiturako Europako Funtsetan genero-ikuspegidun aurrekontuak prestatzeko. Horrez gain, GBEIk kudeatutako Euro Gender sarean parte hartu da.

Europar Batasunaren Inbertsioko eta Egiturako Funtsei (EIE funtsak) lotuta berdintasun arloan eskuratutako konpromisoen jarraipena egin da, eta hainbat programa operatiboren jarraipen-batzordetan parte hartu da. Horrez gain, EIE Funtzen hurrengo programazio-aldia (2021-2027) landu eta programazio-zikloan genero ikuspegia aplikatzeko jardunaldi bat ere antolatu da. Jardunaldi berean GBEI tresna aurkeztu da, EIE Funtsei lotutako aurrekontuetan genero-ikuspegia gehitzea.





*GBEI. Genero Berdintasunaren Europako Institutua.*

Bestalde, Frantziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseiluak Parisen deitutako bileran ere parte hartu da, Europa mailako berdintasun-organismoen jarduera eta lehentasun gakoei buruzko informazioa eta esperientziak trukatzeko, laneko arazo eta erronka komunak identifikatzeko eta jarduketa komunak garatzeko.

**INBEko eta nazioarteko erakundeak.** Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduera hauek egin dira:

Basque Country Estrategia egitasmoaren barruan, Emakunderen Nazioartekotze Estrategia 2019-2020 aurkeztu zaie, bai Kanpo Ekintzari, bai EAEk kanpoan dituen ordezkari eta ordezkarietzen erakunde harremanetarako arduradunei, aipatutako estrategia ezartzeko xedez. Halaber, laneko bi aldeko agendak ezarri dira Argentina-Mercosurreko ordezkarietarekin, Txile, Peru eta Kolonbiako ordezkarietarekin (Emakundek sinatutako bi lankidetzak-memorandumak garatzeko, Familien Fundazioarekin, Txileko Presidentetzako Fundazioen Sarearekin, eta Txileko Genero Berdintasun eta Emakumeen Ministerioarekin), eta Mexikoko Ordezkarietarekin (Mexikoko Gobernuaren Emakumeen aurkako Indarkeria Saihestu eta Desagerrarazteko Batzorde Nazionalarekin kolaboratzeko memorandumak garatzeko).

Munduko Nekazaritza Foroarekin lankidetzan eta horri laguntza ematen jarraitu dugu, Familia Nekazaritzako Munduko VI. Biltzarra antolatzeko lanetan, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde horrek egindako esparru-akordioaren barruan.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkarietarekin elkarlanean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 63. Bilkuran (CSW63) parte hartu dugu. Nazio Batuek urtero antolatzen du New Yorkeko egoitzan, emakumezkoek munduan duten egoerari buruzko jarraipena egiteko. Testuinguru horretan, Emakundek hizlari gisa parte hartu du ekitaldi ofizial zein ez ofizialetan, eta bi aldeko bilerak egin ditu nazioarteko elkarte eta hainbat herrialderekin.

Emakundeko zuzendaria Istanbuler elkartu zen NBE Emakumeen Ekialdeko Europa eta Asia Erdiguneko Eskualde mailako zuzendariarekin eta Nazio Batuen Biztanleria Funtseko (UNFPA EECA) Ekialdeko Europa eta Asia Erdiguneko Eskualde mailako zuzendariarekin, elkarrekin kolaboratzeko bide berriak aztertze emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta desagerrarazpenean, soldata-arrakala ezabatzeko esparruan edo Bejineko Ekintza Plataformaren 25. urteurrena ospatzeari lotutako prestakuntza lanei dagokionez.



Beijing +25 agiria eskualde mailan berrikusteko prozesuan parte hartu da, mundu mailan emakumeen eskubideen aldeko erronkei dagokienez, Genevan egin zena, baita Beijin +25 Nazioarteko Biltzarrean ere: Europar Batasunaren lorpenak, gabeziak eta erronkak, Madrilen egin zena.

UNFPA EECA eta Eusko Jaurlaritzako Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren arteko koordinazioa erraztu da zuzendaritza horrek Europan errefuxiatu eta migranteen krisian emakume eta nesken giza eskubideei buruzko proiektu batean parte hartzeko.

«Emakumeen parte-hartze politikoa udalen eremuan» foroan parte hartu da, NBE-Emakumeak El Salvadorrek antolatutakoa Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan.

Emakundek 2016an Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Turingo III. Foroan parte hartu zuenetik, lankidetzan ari da DELGEN ekimenarekin; ekimen hori Nazio Batuen Garapenerako Funtzaren Latinoamerikako generoaren arloak sustatzen du (PNUD-Panama). Kolaborazio horren esparruan honako jarduera bateratu hau egin da: Nazioarteko Misio Teknikoan parte hartzea: Toki-gobernua genero-



CSW63. New York.



NBE - Emakumeak El Salvador.



ikuspegiarekin: Berdintasunean lidergoa eramatea Emakundek berdintasun-politikak bultzatzen egiten duen lanari buruzko aurkezpen batekin.

Indarkeriaren biktima diren haur eta emakumeentzako funtsezko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globala finantzatzen eta horretan parte hartzen jarraitu dugu; NBE - Emakumeak eta Nazio Batuen Biztanleria Funtsak (UNFPA) gidatzen dute programa, eta haren helburu nagusia nazioarteko adostasuna lortzea da, zehazteko zer elementu eta zerbitzu behar diren emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horri erantzuteko. Nazioarteko programan, behar diren gutxienezko estandarrak adierazten dira, indarkeria hori pairatzen duten emakumeen eta neskatuen premiei kalitatezko erantzun koordinatua emateko. Programan, erantzun instituzionalaren zenbait arlo lantzen dira, hala nola poliziala, judiziala, osasunekoa, gizarte-zerbitzuena, baita koordinazioko eta gobernantzako sistemak eta mekanismoak ere.

EAEEn programa horren esparruan sortu den dokumentazio guztia jaso eta antolatu da, lan-prozesuaren parte izan diren pertsona guztien zerbitzura jartzeko. Informazio hori eskuragarri dago hobekuntza-programa kudeatzeko sortutako webgunean: [www.emakundeonu.eus](http://www.emakundeonu.eus)

Programa horren esparruan, 2019ko urtarrilaren 9an itxiera-jardunaldi bat antolatu zen, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan hainbat jarduketa-esparrutan garatutako prozesua ixteko, hain zuzen ere; prozesuan zehar identifikatutako erronkak eta ondorioak aurkeztu ziren. Jardunaldia Lehendakartzan egin zen, eta bertan izan ziren lehendakaria eta UNFPA eta NBE-Emakumeak ataleko bi ordezkari, hurrenez hurren; 83 pertsona bertaratu ziren, denak prozesuko parte-hartzaileak. Jardunaldi horrekin bukaera eman zaio Programa Bateratu Globalan EAEEn izan duen parte-hartzearen bigarren faseari. Gisa bera, abenduaren 10ean eta 11n Istanbulen egindako lan-tailerrean ere parte hartu da, Programa Bateratu Globalaren hirugarren fasea prestatzeko. Programaren garapenari laguntzeko, dirulaguntza izendun bat eman zaio Nazio Batuen Biztanleria Funtsari; izan ere, funts horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.

Bestalde, irailaren 9tik 11ra Emakundek NBEren «*We Decide*» (geuk erabaki) urte anitzeko programaren esparruan antolatutako bileran eta prestakuntza-saiioetan hartu du parte Istanbulen; indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubideaz eta desgaitasuna duten emakume eta gazteek ugalketarako eskubide eta eskubide sexualez gozatzea sustatzen du. Programa horren lidergoa UNFPAk du (Nazio Batuen Biztanleria Funtsa), eta, besteak beste, Emakunderen finantzaketa ere badu. Programaren helburua desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta giza eskubideak sustatzea da, eta eman zaion ikuspegian bermatu egin da emakumeek, nerabeek eta gazteek badutela gaitasuna osasun-aukerei, bititza sexualei eta ugalketa-arloari dagozkien erabakiak hartzeko. Programaren garapenari laguntzeko, dirulaguntza izendun bat eman zaio Nazio Batuen Biztanleria Funtsari; izan ere, funts horrek bideratzen du nazioarteko proiektu hau.

**Hirugarren sektoreko erakundeak.** Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan aritu da jarduketa batzuetan, adibidez:

- Zinema Ikusezineko Jaialdiaren seigarren edizioarekiko (2018) lankidetzan, emakume errealizadore onenaren sariari babesa emanez;
- Bertsozale Elkartearikiko lankidetzan, bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzeko eta prestakuntza-jardueren bitartez emakume bertsolarien ahalduntzea babesteko;
- Argiri Emakume Elkartearikiko lankidetzan, Irungo Alarde Mistoaren elkarteari babesa emateko;
- Euskal Herriko Emakumeon Martxako plataforma elkarteari kolaboratzea, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak ospatzea martxan jartzeko, «*Salda Badago*» lelopean.



## 2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legeriak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira.

Emakundek 1991n ekin zion ibilbideari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

### **EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA EBALUATZEA**

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren garapen-maila ezagutu dezakegu, gauzatzearen ikuspegitik. Ikuspegi horren mugak gorabehera, intereseko panoramika bat eskain dezake, oinarritzko kontu batzuen inguruan, besteak beste, aurrerapena berdintasun-politiken plangintzan, berdintasun-politikek beren erakundeetan sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena edo administrazio publikoek berdintasuna sustatzeko bideratutako aurrekontuak.

Jarraipen hori EAEko erakundeek aplikazio informatiko baten bidez betetako galdetegiari esker lortutako informazioan oinarritzen da. 2018an egindako jarduerari buruzko informazioa batu da 2019an. Guztira, 131 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren (2018) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako erakunde autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2018. urteari buruz.

## 2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakundea osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

### 2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du – bereziki dirulaguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretana ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, horren jarraipena egiten eta eguneratzen. Halaber, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du, erakundearen jardura esparruaren berezko gaietan.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua egiten eta izapidetzen laguntzea.
- Lankidetzeta-hitzarmenak egitea hiru foru-aldundiekin, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko «Beldur Barik» erakunde arteko kanpaina garatzeko eta finantzatzen laguntzeko.



- Generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailtako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko lankidetzak-erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan aholkularitza teknikoaren emateko aholkularitza-erakundeen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketaren bidez ematen dituen dirulaguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jarduera-aldaketak, errekursoen ebazpena, akatsen zuzenketak, luzapenak, etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Dirulaguntza eta laguntza horiek xede hauetarako izan daitezke:
  - emakumeen elkarteak sustatzeko,
  - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
  - udalerrientzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
  - enpresa eta erakunde pribatuentzat, homologatutako kontsultoreak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
  - ikerlanak egiteko,
- ikerlanak argitaratzeko (VII. lehiaketa), edo
- «*Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterra*» egiteko.
- Dirulaguntza izendun eta zuzenak prestatu eta tramitatzea erakunde hauentzat:
  - Nazio Batuen biztanleria-funtsa (UNFPA), Indarkeria jasaten duten Emakume eta Neskatuentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Baterako Programa Globala garatzen laguntzeko.
  - «*Maite Albiz*» Emakumeen Dokumentazio Zentroa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
  - Euskal Herriko Unibertsitatea, 2019-2020 ikasturtean «*Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online*» emateko.
  - Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte, udalerriri txikienei berdintasun-politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzen laguntzeko (Berdinbidean); berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea garatzeko (Berdinsarea); eta Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluan Eudel zuzendari izatea babesteko, eta zuzendari izateak eragiten dituen gastuei erantzuteko.
  - Gazteen Euskal Kontseilua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aholkularitza emateko.
  - Argiri Emakume Elkarte, Irungo Alarde mistoa antolatuzeko.
  - Askabide Elkarte, sexu-esplotaziorako xedez egindako gizaki-salerosketaren biktima izan diren emakumeentzako arreta-programa kudeatzeko.
  - Congregación Oblatas del Santísimo Redentor lagunartea, sexu-esplotaziorako gazakien salerosketaren biktima izan diren emakumeak hautemateko eta haiei arreta emateko programa kudeatzeko proiektua martxan jartzeko.



- Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioari, «*Alianzas estratégicas para el cambio: el empoderamiento como herramienta de acción transformadora*» ikastaroa egiteko.
- Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKEari, «*Film Sozialak*» Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzeko. Eta, gainera, epaimahaian ere parte hartu dugu.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari, emakumeen parte-hartzea sustatzeko bertsolaritzan, genero-ikuspegia ezartzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- Euskal Herriko Emakumeon Martxarako Plataforma elkarteari, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak ospatzea martxan jartzeko, «*Salda Badago*» lelopean.
- Nazio Batuen Biztanleria Funtzari (UNFPA), «*We decide*» (Geuk erabaki) proiektuaren bigarren fasea martxan jartzeko, generoan oinarritutako indarkeriari eta desgaitasuna duten emakume eta gazteen ugalketa eta sexu-eskubideei buruzkoa.



«We decide» Proiektua.



- «2019ko Emakunde Saria»ren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Herritarrek, hainbat erakundek eta Emakundeko langileek hainbat gairi buruz egindako galderei erantzutea eta horiek bideratzea: laguntzen deialdiak eta esleipenak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeria, erakunde laguntzaileak eta gizarte-zehapenak aitortzea, Emakunderen kontsulta-organoak antolatzea eta atxikitzea, generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa, datuen babesa, amatasuna, edoskitzea eta eszedentzia, etab.
- Etxeko zerbitzurako langileen araudiari buruzko informazio-liburuxka eguneratzea.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeari laguntzeko taldean parte hartzea.
- Erakundearen administrazio-egintza guztien tramitazio elektronikoa egitea.

### 2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarrizko estrategia dela uste du. Halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

#### **JABETUZ programa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalen zuzendua**

2015. urtean, Emakundek «JABETUZ» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako online emandako lehen oinarrizko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa horren bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

Online oinarrizko prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du eta ikastaroaren helburu nagusia Etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduntzea da.

2019. urtean, oinarrizko Jabetuzen bi ikastaro eman dira: 9. edizioa otsailaren 18an hasi zen eta 10. edizioa irailaren 16an. Parte-hartzeari dagokionez, 169 pertsonak hartu dute parte; horietatik 23 gizonak izan dira, eta 146 emakumeak, aurreko urteko erakundeetakoak; Hezkuntza Sailaren ordezkari handiagoa izan da, eta hezkuntza-esparruko profesional mota ugari parte-hartze zabala izan dute.

Bestalde, Erakundearteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharrak aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharrak dagokienez ere. Izan ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zuten, «Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Aniztasun funtzionala» gaietan, esaterako.



lido horretan, 2016an, Emakundek Jabetuz online prestakuntza-ikastaro aurreratua diseinatu eta abiarazi zuen; programak hiru unitate didaktiko eta 35 orduko iraupena du, eta ezagutza- eta sakontze-maila handiagoa behar duten gai batzuen inguruan aurrera egiten jarraitzea du helburu.

Horrela, bi lehen unitateetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabei buruzko araudia aztertzen da, ikuspegi hirukoitz batean oinarrituta: giza eskubideak, haurtzarora eta generoa. Era berean, seme-alabek jasaten duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, indarkeria-mota horren zuzeneko biktimak direnez. Eta, amaitzeko, azken ikasgaien emakumeen aurkako indarkeriaren barnean, aniztasun funtzionala aztertzen da, zehazki, desgaitasun fisikoa duten emakumeen egoera eta premiak. Ikastaroa egin ahal izateko ezinbestekoa da aurrez oinarrituko online prestakuntza-ikastaroa egin izana.

2018. urtean, Emakundek igo egin du aniztasun funtzionalari buruzko ikastaro aurreratuaren gai kopurua. Lehen, II. moduluan, aniztasun funtzionala orokorrean lantzen zen eta desgaitasun fisikoa eta organikoa aztertzen ziren. Aurten gaiak zabaldu egin dira honako hauei dagokienez: gaixotasun mentala, entzuteko desgaitasuna, adimen-desgaitasuna eta/edo garapen-desgaitasuna eta ikusteko desgaitasuna. 2019an «Jabetuz» ikastaro aurreratuaren laugarren edizioa egin da, apirilaren 1ean hasita. 97 parte hartzaile izan ziren, 87 emakume eta 10 gizon.

### **EHUko udako ikastaroak**

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, uztailaren 2an eta 3an, «Aldaketarako aliantza estrategikoak: ahalduntzea eraldaketarako ekintza tresna bezala» ikastaroa antolatu zuen. Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren: Bultzatzeko beharrezko estrategia eta ahalduntzearen garrantziari buruz hausnartzea. Ahalduntzerik gabe ez dago berdintasunik, baita emakumeen eta feministen mugimenduaren eta erakundeen arteko aliantzak eta elkarrizketa eraikitzeari dagokionez ere. Emakumeen arteko trukea, asoziazionismoa eta lankidetzaren birpentsatzea, gaur

egungo erronka partekatuen aurrean. Ahalduntze pertsonalerako zein talde ahalduntzerako estrategiak eta topaketa-espazioak ezagutzera ematea.

Honako ikastaro hauek eman ziren: «Somos la cuarta ola» Rosa Cobo Bedia; «Feminismos negros: teoría y práctica para el empoderamiento de las mujeres racializadas» Jeanne-Rolande Dacouagna Minkette; «Monstruas y centauras» Marta Sanz Pastor; «Ahalduntzea emakumeen begiradetatik» Maitane Pikaza Gorrotxategi; «El empoderamiento a la luz de la herramienta de la interseccionalidad» Jone Martínez Palacios; «Las mujeres como sujeto político feminista en la cuarta ola» Luisa Posada Kubissa.



Udako ikastaroak.



Horrez gain, mahai inguru bat ere egin zen, «*Emakumeen sareak eta aliantzak: erronkak eta aukerak*» izenburupean; bertan izan ziren Pilar Kaltzada González Linking Ideas - kazetaria eta aholkularia (moderatzailea), Yolanda Barona Trapote, Belén Forniés Bello, Nati López de Munain Alzola, Aitziber Torres.

### Beste prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera batzuk

Era berean, Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu:

- Hitzaldia Emakumeen Osasunaren Nazioarteko Egunean, «*Zaintza eta bere eragina osasuneko genero desberdintasunetan*» izenburupean. Maiatzaren 28an eman zen Ibaiondo Udaltegiko «*La Bolsa*» eraikinean, Bilboko Pilota kaleko 10. zenbakian. Maria del Mar García Calventek eskaini zuen, Genero eta Osasun irakaslea Osasun Publikoko Andaluziako Eskolan.
- «*Erronkak indarkeria matxistaren biktimei diren eta desgaitasuna duten emakumeenganako arretan*» jardunaldia, Bilbon, ekainaren 14an; Edekaren parte diren entitateetako ordezkariak hartu dute parte; desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren erakundeak biltzen dituen euskal koordinakundea da Edeka, gure erkidegoko gor-itsutasuna duten pertsonen entitatearekin batera. Guztira 255 profesionalak hartu zuten parte, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko sistemako hainbat esku-hartze eremutakoak. CERMI Emakumeak Fundazioaren presidenteorde exekutiboak eta Emakumearen Diskriminazioa ezabatzeko Nazio Batuen Batzordeko kidea den Ana Peláez Narváez arduratu zen hitzaldi nagusiaz. Gainera, EDEKako 8 pertsonarekin mahai ingurua dinamizatu zen. Jardunaldiari lehendakariak eman zion amaiera, eta bertan, gainera, Emakundek Edekarekin batera egindako «*Indarkeria matxistaren biktimei diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskek. Esku hartzeko jarraibidea*» gida ere aurkeztu zen.
- Hiru jardunaldi (lurralde bakoitzeko bana), Emakundeko Aholku Batzordearekin batera, EAEko emakumeen elkarten mugimenduari zuzendutakoa; helburu



Jardunaldia «*Erronkak indarkeria matxistaren biktimei diren eta desgaitasuna duten emakumeenganako arretan*».

estrategikoa emakumeen elkarrizketa soziopolitikoa bultzatu eta ikusaraztea izan da:

- Arabako emakumeen elkarten topaketa Emakunde-Eusko Jaurlaritzarekin elkarrizketa izateko, «*Taldea ehunduz, elkarrizketarantz ibiltzen*» izenburupean; 2019ko azaroaren 15ean Emakundeko egoitzan egin zen.
- Bizkaiko emakumeen elkarten topaketa, «*Emakume guztiak gara beharrezkoak: elkarten eta erakundeen arteko hizketa*» izenburupean, Euskadiko Artxibo Historikoan egindakoa, Bilbon, 2019ko azaroaren 12an.



- Gipuzkoako emakumeen elkarten jardunaldia, Emakunde - Eusko Jaurlaritzarekin elkarrizketa izateko: «*egon ginen, gaude, egongo gara, ahalduz kolektiboa*» izenburupean, Londres hotelean, Donostian, 2019ko azaroaren 29an.
- Euskaliten «*Berdintasuna enpresetan, berrikuntza eta hazkunde ekonomikoa*» biltzarrean parte hartzea. Biltzarra Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXV. Europako Astearen esparruan antolatu zen, azaroaren 14an, Bizkaia Aretoan, Bilbon. Emakundek biltzarrean parte hartzeak honako helburu hauek ditu:
  - Enpresetan berdintasuna sustatzeko Emakundek egindako lana eta hazkunde ekonomikoari eta berrikuntzari egindako ekarpena ezagutzera ematea, eta kooperatiba batean berdintasuna kudeatzeko praktika bat aurkeztea, bizitzak erakundeen erdigunean jartzeko beharrianari dagokionez, parte-hartzearen, loturaren, uztartzearen eta zaintzaren bitartez. Enpresek kontziliazio erantzukidearen politiken inguruan duten ikuspegia zabaltzea da helburua, eta berdintasunerako pertsonen kudeaketak izaera estrategikoa duela nabarmentzea, lehiakortasunerako elementu gako modura.
- «*Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (III)*» jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuen XXV. Europar Astearen esparruan (Euskalitek sustatuta), Bilbon, azaroaren 8an. Jardunaldiak honako helburu hauek zituen:
  - Emakundek eta Euskalitek 2019an kudeaketa aurreratuko esparruan berdintasunaren arloan egin dituzten ekintzak aurkeztea.
  - Berrikuntzarako jarraibideak ematea, generoaren ikuspegitik: jarrerak egunez egun eraldatzen.
  - Kudeaketa aurreratuan enpresetan izandako berdintasun-esperientziak ezagutzera ematea

- «*Berdintasuna enpresetan: aldaketak araudian eta erantzukizun partekatuetan*» jardunaldia, Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXV. Europako Astearen, azaroaren 5ean, Euskadiko Artxibo Nagusian, Bilbon. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:



Jardunaldia. Berdintasuna enpresetan.



- Gomendioak ematea aurrera egiteko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren garapenean, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriena.
- Lanean genero-indarkeriaren aurkako jarduketa-protokoloen diseinuan sakontzea.

Jardunaldi amaieran, aintzatespen-plakak eman zitzaizkien honako erakunde kolaboratzaile hauei: Do's Formación SL, CPES Fernando, BHI (Ferlan 2014 SL), Harrobia Lanbide Ikastola eta Ascensores Muguerza SA.

- Lan Ikuskaritzarekin eta Osalanekin batera antolatutako jardunaldia, «*Lan-osasuna genero-ikuspegiarekin eta soldata-arrakala*» izenburupean. Azaroaren 28an egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Honako hauek izan ziren jardunaldiaren ardatz nagusiak:
  - Sexuaren ondoriozko eta jazarpen sexualaren aurkako protokoloak aplikatzeko jarraibide metodologikoak aurkeztea.
  - Genero-ikuspegiarekin Lan Ikuskaritzak 2019an egindako jarduketak ezagutzera ematea.
  - Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan integratzeko jarraibideak ezartzeko proiektu pilotuaren emaitzak aurkeztea.
- «*Enpresetan berdintasun-planak egiteko derrigortasunari buruzko informazio-jardunaldia*», Arabako Graduatu Sozialen Elkargoaren egoitzan. Ane Miren Fernandez Gómez eta Itxasne Loroño Etxeandia, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakunde Programatik eta Prestakuntzen ataleko teknikariek «*Berdintasun-planak eta diagnostikoak egiteko gomendioak*» hitzaldia eskaini zuten.

- Durangaldeko Amankomunazgorako prestakuntza-saio bat egin dugu, desgaitasunari eta indarkeria matxistari buruzkoa; Etxeko tratua txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa sinatutako esparru guztietako profesionalak hartu zuten parte, indarkeria matxistako biktimak artatzen dituztenak. Saioa irailaren 27an egin zen, Durangoko emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Koordinazio Protokoloaren esparruaren barruan.

### Aholkularitza espezializatua eta irakaskuntza kolaborazioa

Emakundek laguntza eta aholkularitza ematen dizkie beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko, edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen lagunduz. Zeregin hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azken urteetan.

Zeregin horrekin lotuta, nabarmentzekoa da IVAPekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana berdintasunean oinarritutako zeharkako prestakuntzaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. Hain zuzen ere, IVAPekin kolaborazioan aritu gara irakaskuntza-eskaintza diseinatzen, irakaskuntza-beharrizan berriak identifikatzen eta ikastaro berriak proposatzen. Emakundeko langileek, gainera, modu egonkorrean kolaboratzen dute IVAPek antolatutako emakumeen eta gizonen berdintasuneko prestakuntza-ikastaroak irakasten. Hain zuzen ere, 2019an «*Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntzako oinarritzko ikastaroa*» eman da (bi edizio). Horrez gain, Emakundeko langileek EHUk antolatutako «*Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko Masterra*» irakasten eta Deustuko Unibertsitatearen «*Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra*» irakasten parte hartu dute.

- 2019an, gainera, honako prestakuntza eta jardunaldi hauetan ere kolaboratu da:
  - 2019ko urriaren 3an, Osakidetzak Bilbon antolatutako Euskal Herriko Zainketen I. Jardunaldi Multiprofesionalaren esparruan, Emakundeko



Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Ataleko arduradunak hitzaldi bat irakurri zuen emakumeen aurkako indarkeria eta komunitate zaurgarrien inguruan.

- Gasteizen abenduaren 13an egindako jardunaldi batean ere parte hartu da, Osasun Sailak sustatutakoa, «*Begiratu orainari, sortu etorkizuna*» izenburupean; bertan, Emakundek «*Mujeres en situación de discapacidad posiblemente invisibles e ignoradas*» gaia hartu zuen hizpide.
- Agirre Lehendakaria Center zentroarekin, prestakuntza-saio bat eman zaie Etorkizuneko liderrak prestatzeko programako ikasleei.

### 2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, baita berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik, ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan-ildo honetan, zenbait jarduera sartzen dira, besteak beste: erakundearen beraren argitalpenak eta ikerketan genero-ikuspegia sartzea sustatzeko beken deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnei.

### Azterlanak

#### EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2019

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak» izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren legezadapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonak gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa.

Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoen eskura jartzea, eta horiek ezabatzerako bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Txosten honek informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena. Horretarako, datu kuantitatibo ofizialak eskaintzen dituzten informazio-iturri nagusiak hartu dira kontuan, Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) eta beste estatistika-erakunde batzuen (INE eta Eurostat, batez ere) estatistikak erabiliz. Era berean, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako, Estatuko Ministerioetako eta Emakundeko informazioa bildu da.

Txostenak zazpi atal ditu:

1. Demografia-azterketa
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna



6. Parte-hartzea

7. Emakumeen aurkako indarkeria

### Genero-arrakalak EAEko lan merkatuan

Azterlana Emakundek eskatu zuen, EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Eragilearen esparruan; Sara de la Rica Ekonomiako katedradunari eskatu zitzaion, eta honek egin zuen EAEko Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunei buruzko Inkestaren datuetan oinarrituz, Lucía Gorjón eta Ainhoa Vega ikertzaileekin batera.

Azterlanak agerian jarri zuenez, adin guztietako emakumeek (gazteak, helduak zein nagusiak), hezkuntza maila guztietakoek (nahitaezko ikasketak, lanbide heziketako ikasketak eta goi mailako ikasketak), lanaldi eta kontratu mota guztiak dituztenek (mugagabeak zein aldi batekoak, lanaldi osoan zein partzialean) eta lan mota eta maila guztietakoek pairatzen dute soldata-arrakala.

Azterlanak, horrez gain, azaldu zuen soldata-arrakalaren % 35en atzean sexuaren araberako lan segregazioa dagoela. Sexuaren araberako lan segregazioa da emakumeen eta gizonen soldata-arrakalan gehien eragiten duen faktorea; segregazio horren ondorioz, emakumeen eta gizonen genero-rolen lotutako lanbideak okupatzen dituzte, eta horietan antzematen da soldata-arrakala pixkanaka handitu egiten dela lanbide batean gero eta emakume gehiago egon.

Ikerketa ekainaren 25ean aurkeztu zen komunikabideen aurrean Emakunderen egoitzan.

### Emakumeen aurkako indarkeriaren estatistikak eta txostenak

Emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioari buruzko txostenak egin dira: «EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. 2018ko datu estatistikoak». Orobat, emakume biktimei emandako arretari buruzko datu bilketaren analisi txostena ere osatu da: «EAEn emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean eman den erantzuna. 2018ko datuak». 2019an adierazle berriak sartu dira indarkeria arloko gastu eta aurrekontuari dagokionez, emakume biktimak artatzen dituzten profesionalen kopuruari dagokionez,

langileen prestakuntzari dagokionez eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prebentzio eta sentsibilizazio kanpainei dagokionez.

Txosten guztiak Emakunderen webgunean argitaratu ditugu.

Era berean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-datuak hilerok argitaratzen ditugu webgunean.

### Ikerlanetarako beka

Ikerlanak egiteko 2019ko beken deialdia 2018ko abenduan argitaratu zen. Beka bakoitzaren zenbateko ekonomikoa (23.333 euro) ezarri zen, baita iraupena (10 hilabete) eta deitutako hiru beketako bakoitzaren ikerketa-helburua ere:



Ikerlanetarako beka.



- **1. motako beka:** gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzaten lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea;
- **2. motako beka:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzean eta segurtasunean; eta
- **3. motako beka:** erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduntze politikoa, ekonomikoa eta soziala eta lidergoa mesedetzeko eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen laguntzeko.

1. motako bekan 28 eskaera aurkeztu ziren; 2. motako bekan, 17; eta 3. motako bekan, 19. Eskaeren kopuru osotik, deialdian 100 parte hartzaile baino gehiago izan dira. Balioespenak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru bekak esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 6 pertsona ari dira prestatzen (5 emakume eta gizonezko 1), eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

**MOTAKO BEKA 1**

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: Carmen Andrea Cares Mardones (koordinatzailea)	Participación de mujeres racializadas en movimientos migrantes y feministas en Euskadi: narrativas, estrategias y resistencias.	23.333 €

**MOTAKO BEKA 2**

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: Nagore Oroz Motoso (koordinatzailea)	¿Encuentran las mujeres obstáculos para acceder y mantenerse en los recursos de tratamiento de adicciones? Análisis de la situación actual.	23.333 €

**MOTAKO BEKA 3**

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: Veronica Benedet	Arquitectas (in)VISIBLES en Euskadi. La problemática que esconde esta invisibilización.	23.333 €



2018ko beken deialdiari dagokionez, beka mota guztiak 2019an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza. Horrez gain, aurtan bi beken prestakuntza-emaitza komunikabideen aurrean aurkeztu da; bata 2017koa da, eta irailean aurkeztu zen, izenburu honekin: «*EAEko emakumeen despatriarkalizaio maila eta euskal demokraziaren kalitatean duen ondorioa*»; beste beka 2018koa da, eta abenduan aurkeztu zen, izenburu honekin: «*Dibertsitate funtzionala duten emakume gazteek bizi duten lan-egoerari buruzko diagnostikoa*». Bi ikerlanak Emakunderen webgunean argitaratu ditugu hedatzeko.

### Argitalpenen lehiaketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehiaketaren lehenengo deialdia sortu zen; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi dira. Helburu horrekin, 2019ko maiatzean, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VI. lehiaketa ebatzi zen (2018koa); 7 hautagai izan ziren, eta, hautagaien balioespenaren ondoriozko puntuazioa ikusi ondoren, Hautaketa Batzordeak erabaki zuen Estíbaliz Linares Bahillo andreak aurkeztutako hautagaitza saritzea ikerketa-lan gisa 2018ko Berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VI. Lehiaketan.

2019ko azaroan «*Iceberg digital matxista: EAEn nerabeen artean ematen diren errealitate digital matxisten analisia, prebentzioa eta esku hartzeak*» ikerketa saritua aurkeztu zen jendaurrean. Eta Emakunderen webgunera igo zen hedatzeko eta argitaratzeko.

Bestalde, Emakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 2ko ebazpenaren bitartez, 2019an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VII. lehiaketarako deia egin eta arautu zen. Lanok baldintza hauexek bete behar dituzte: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jarrera diferentzialaren eta bizitzaren esparru guztietako genero-harremanen inguruko ezagutza hobetu,



Argitalpenen VI. lehiaketa.

desberdintasunak sortzen dituzten kausak hobeto ezagutzen lagundu, eta berdintasun-politiken jardunbide egoki bihurtu daitezkeen ikerlanen emaitzak jakinarazi. VII. lehiaketaren ebazpena hurrengo ekitaldian zehar garatu eta egingo da.





«Genero-ikuspegia kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan txertatzeko gidaliburua».

### Argitalpenak

2019an, argitalpen hauek egin dira:

#### Lehiaketaren saria:

4. zk.: «Iceberg digital matxista: EAEn nerabeen artean ematen diren errealitate digital matxisten analisia, prebentzioa eta esku hartzeak». Autorea: Estíbaliz Linares Bahillo

Bertsio elektronikoa Emakunderen webgunean aurki daiteke.

#### Gidak:

33. zk.: «Genero-ikuspegia kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan txertatzeko gidaliburua».

Bertsio elektronikoa Emakunderen webgunean aurki daiteke.

#### Beste gida batzuk:

«Indarkeria matxistaren biktimak diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskek. Esku hartzeko jarraibideak».

2.000 ale paperean, bertsio elektronikoa: euskaraz eta gaztelaniaz.  
Bertsio elektronikoa Emakunderen webgunean.

#### **Dokumentazio Zentroa**

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanekin jarraitu du, baita Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabilizaleei arreta eskaintzetik eratorritako lanekin ere:

- Funts bibliografikoak eta bideoerak erosi, katalogatu eta indexatzea.
- Aldizkarien harpidetzak kontrolatzea eta horietako artikulak hustea.
- Informazio-eskaerei erantzutea.
- Bibliografiari buruzko aholkularitza eta bibliografia- eta bideoerak zerrendak «nahierara» egitea.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatzea.
- Liburuak eta bideoak mailegatzeko.

Zentroaren ohiko kudeaketa- eta mantentze-jarduerari dagokionez, 2019an zehar 300 dokumentu bibliografiko eta bideoerak inguru jaso dira eta 633 erreferentzia dokumental berri gehitu dira bibliotekako datu-basera: % 50 monografiak dira eta % 35 baino gehiago artikulak, dokumentuak... 2019. urtearen amaieran, Emakundeko Dokumentazio Zentroaren funts dokumentalean 25.628 erreferentzia dokumental zeuden.



Euskarri elektronikoak gero eta protagonismo handiagoa du, eta monografiaren erdia baino gehiago PDFak dira. Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 20 euskarri digitalean (DVD) dagoela -35 bideograbazio-. Era berean, Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko, baina gero eta gutxiago.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, hilean behin «*Berrikuntzen buletinak*» prestatzen dira. Horiek hala eskatzen duten Dokumentazio Zentroei, Erakundeko teknikariei, Eusko Jaurlaritzako sailtako Berdintasun Unitateei eta azken bost urteetan eskaeraren bat egin duten dokumentazio-zentroko erabiltzaileei banatzen zaizkie, posta elektronikoa bidez.

Herritarrentzako arreta- eta aholkularitza-zerbitzuei dagokienez, kanpoko 216 informazio-eskaerari erantzun zaie. Horietatik % 83 (188 kontsulta) EAEkoak dira, % 16 (26) beste autonomia-erkidego batzuetakoak eta % 1 (2) atzerrikoak. Aurreko urtearekin alderatuta (2018), eskariak gora egin duela antzeman da, 177tik 216 eskaerara igaroz.

Posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea (176 kontsulta 2019an), aurreko urteetako kopuru bera. 2018. urtean, % 84k erabili zuten bide hori, eta iaz (2019) % 78k. Era berean, proportzioak berdinak dira zentrorantz pertsonalki joaten direnen aurreko kontsulten kopuruak (25 izan ziren 2017an eta 16, berriz, 2019an), eta postaz egindako kontsultak ia guztiz desagertu dira, bere garaian faxarekin gertatu zen bezala.

Dokumentu elektronikoaren erabilgarritasun handiagoak –Emakunderen webgunean nahiz Dokumentazio Zentroaren gure katalogoan– dokumentuak deskargatzeko aukera eskaintzen du Emakunderen webgunean, maileguan eskatu beharrik izan gabe, eta hori zuzenean eragiten ari da azken urteetan hauteman den zentrorantz egindako eskaeren beharakadan, baita artatutako telefono bidezko kontsulten kopuruan ere. Hori gorabehera, liburuaren mailegu kopuruak gora egin du, 2018an 91 mailegu izatetik iaz 2019an 109 mailegu izatera igaro baitira. Ikus-entzunezko

dokumentuei dagokienez, 22 mailegu egin dira. Telefono bidezko kontsultei dagokienez, urtean zehar 325 dei jaso dira. Aurreko urteetan bezala, dei kopurua handiagoa izan da azaroan eta martxoan, emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna eta emakumearen nazioarteko eguna direla eta.

Bestalde, dokumentu elektronikoak gero eta gehiago eskatzen dira (monografiak zein zentroan gordetako artikulua eta dokumentuak edo sarean kontsultatutako baliabideak). Sarritan, Emakundek argitaratutako liburuak dira, baita paperean ere, baina banaketarako agortuta daudenak. Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Emakundeko langileek egindako barneko informazio- eta dokumentazio-kontsultetan ere hautematen da dokumentu elektronikoaren kontsulta kopuruaren igoera, eta, horien artean, aldizkari elektronikoetako artikulua eta doktorego-tesiak gailentzen dira. Maileguri dagokienez, 122 liburu-mailegu eta ikus-entzunezko dokumentu, bideo, DVD eta CD-ROM-en 7 eskaera erregistratu dira. Berdintasunaren gaiaren inguruko bibliografiak edota edozein motatako informazioa ere eskatu da. Nabarmendu behar da eskaeren kopuruak gora egin duela, barne langileena zein zentrotik kanpoko erabiltzaileena, aurreko urtearekin alderatuta.

Estatuko beste dokumentazio zentro batzuekin kolaboratzeko esparruan, nabarmendu behar da Emakumeen Liburutegi eta Dokumentazio Zentroen Sareak garatutako proiektu eta jardueretan parte hartu dugula, esaterako «*emakume*» gaia zehazki adierazteko tresnak eguneratu eta berrikusteko lan kolektiboan (Tesauro). Gainera, urteko bigarren hiruhilekoan, funtseko liburu bikoiztuak banatu zituen sareko kide diren emakumeen liburutegi eta dokumentazio-zentroen artean.

Bestalde, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko dirulaguntza izendun baten bitartez.





Documentazio Zentroa.



### 3. **Gizarte osoa** xede duten jarduerak



Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaille eta helburu handia. Memoria honen lehenengo zatian Emakundek batez ere erakunde publikoen eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sortutako egitura eta tresnen bidez gizarteari begira sustatutako ekintzak deskribatu dira. Bigarren zati honetan, herritarrei zuzenean zuzendutako ekintzak zehazten dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

## 3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

### 3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin

Aholku Batzordearen esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain<sup>3</sup>, Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak ematen dizkie hala eskatzen duten elkarrekin, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, autonomia-erkidegoan eta autonomia-erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarten ordezkarien lurralde arteko batzordea. Interlokuzio soziopolitikorako prestakuntza-proiektua.
- Komunikazio-batzordea lurralde-eremuan.
- Landa-eremuetako emakumeen elkarteak.
- EAEko emakume ijitoen elkarteak.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Emakume etorkinen elkarteak.

Sareak sortzeko sustapena dela eta, Emakundek Emakumeen elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu du. Gune horietan, besteak beste, prestakuntza-beharrak landu dira, baita antzeko interesak dituzten

elkarrekin artean koordinatutako proiektuak antolatzeko formulak ere. Halaber, jarduketa-ereduak sortzeko lanerako bide eman du, parte-hartze aktiboagorako, bai emakumeen erakundeen barruko barne-dinamikari dagokionez, bai horiek hainbat eremutako sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Halaber, lurralde historiko bakoitzean 2019 komunikazio-planaren helburu eta ekintza egokiak ezartzen lagundu eta erraztu dugu. Plan horrek aurtengo ekintzak bideratu ditu. Komunikazio Plan horren helburua aintzatespen eta ikusgaitasun handiagoa lortzea eta Emakunderen Aholku Batzordearen lana gizareratzea da gizartean duen interlokuzio-zeregina finkatzen laguntzeko. Plan hori egiteko, modu aktiboan jardun dute lurraldeetako Aholku Azpibatzaordeak eta tresnak sortu dira helburua lortzen laguntzeko. Tresna horien artean emakumeen eta Emakunderen arteko elkarrekin soziopolitikoaren esanahiaren berri ematen duen ikus-entzunezko baten garapena dago.

Emakume Nekazarien Estatutua garatzeko Jarraipen Batzordearen parte izan gara; bertan, Batzordeak berak agindutako zenbait proiektu eta ekintza diseinatzen kolaboratu dugu, Emakume Nekazarien Estatutua garatzeko nekazarien esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortze aldera.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eguneratzen eta EAEko emakumeen elkarten gida eguneratzeko helburuarekin jarraitu da.



Aurten lanean jarraitu da, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aholku Azpibatzordeen arteko komunikazioak eta loturak sistematizatzeko metodologiaren diseinurik egokiena identifikatu ondoren, tresna laguntzaileen bitartez, Komunikazio Planean adostutako helburu batzuk betetzeko.

Metodologia hori diseinatzeko eta aplikatzeko hiru Aholku Azpibatzordeetako elkarten ordezkariak parte hartu dute, metodologia eraginkorrena adosteko, lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

2019an Aholku Batzordearen funtzionamendu- eta antolaketa-protokoloa bukatzea lortu da, baita ordezkartza-lanei lotutako hainbat lan-prozedura ere, osatzen ari direnak: Zuzendaritza Kontseilua, Begira Batzordea, Emakunde sariak, Lurraldearteko Batzordea, Aholku Batzordearen Osoko Bilkura, Lurralde mailako Aholku Azpibatzordeak eta lantaldeak.

Horrez gain, interlokuzio soziopolitikorako prestakuntza-proiektua egin da, eta horren bitartez interlokuzio eraginkorragoa lortzen ari da.

Volar dokumentala egin eta proiektatzearen ondorioz emakume biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkarten arteko dinamikak baliatuz, Emakunderen erreparazioko proiektuaren barruan, emakume biktimen/bizirik atera diren emakumeen elkarteekin harreman estua izan dugu. Harreman horren adibide modura, 2019ko apirilaren 12an, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren aldatetaren aurreproiektuaren zirriborroari buruzko lan-bilera egin zen indarkeria-egoeratik bizirik atera diren eta biktimen EAEko elkarteekin.

Volar film dokumentala Emakundek ekoitzi zuen eta Bertha Gaztelumendik zuzendu zuen; iraganean genero-indarkeria pairatu duten bederatzia emakume dira protagonista, eta esperientziak eta bizi-ibilbidea lehen pertsonan kontatzen dute. 2019. urtean zehar Emakundek hainbat eskaera jaso ditu dokumental hori eskatzuz; hala, EAEko zein estatuko udalerrri askotan eskaini da, eta emakume protagonistak hainbat emanalditan izan dira. Filma bidaltzeko 242 eskaera erantzun dira, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardueretan erabiltze aldera, batez ere azaroaren 25aren inguruan.



*Emakumeen elkarten gida.*



Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarteen eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko trukea bideratzen saiatzen dela.

### 3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako dirulaguntzak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzeko babesa emateaz gain, Emakundek elkarteen jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, dirulaguntzen urteroko deialdiaren bitartez.

Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta federazioentzat da deialdia, baita emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Helburua emakumeen ahalduntze pertsonala, talde mailakoa, soziala eta politikoa sustatzea eta garatzea da, genero-ikuspegia daukaten parte-hartze prozesuen bitartez. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen dirulaguntzen deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Deialdira aurkeztu diren 146 elkarteetatik<sup>4</sup>, 120k jaso dute dirulaguntza. Guztira, 186 proiektu lagundu dira diruz, eta 376.000 euro erabili dira horretarako.

### 3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eta esku-hartze sozialeko funtsezko mekanismoa da.

Hori guztia dela eta, Emakundek, 2019. urtean, jarraitu du laguntza ekonomikoa ematen sentsibilizatzeko eta/edo emakumeen kontrako indarkeria jarrerak prebenitzeko ekintzak martxan dituzten erakundeei, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzera bideratzen dituzten estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 240.000 eurokoa da. 88 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 42 diruz lagundutako proiektuak izan dira<sup>5</sup>; aldiz, behar besteko puntuazioa lortu arren, 7 proiektuk ez dute dirulaguntzarik jaso, kreditua agortu delako. Beste 39 proiektuk ez dute gutxieneko puntuazioa lortu.

## 3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoo hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta sustapenerako aukerekin, lan-bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta

4. Ikus elkarteak 3. eranskinean: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.

5. Ikusi proiektuak, 4. eranskinean: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.



abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

### 3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasun Legea garatuz eta Enplegu eta lantegi arloan gizon eta emakume arteko aukera eta berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko martxoaren 7ko 6/2019 Errege Dekretua indarrean sartzean, eta enpresetan berdintasuna sustatzearen inguruan kontzientzia handiagoa dagoela kontuan hartuz, informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela ikusi da, ez soilik berdintasun-diagnostikoak eta planak egiteko, baita plan horiek martxan jartzeko ere. Hain zuzen ere, enpresa txikien informazio-eskaerek gora egin dute, aipatutako errege dekretua onartu ondoren, besteak beste, berdintasun-plan bat edukitzeko derrigortasuna baitute. Horrez gain, sexuaren ondoriozko eta sexu-jazarpenaren aurkako berariazko protokoloak aplikatzeari lotutako kontsulta kopuruak urtero egin du gora, baita esparru horretako prestakuntza-eskaeren kopuruak ere.

### 3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunerako-diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza kontratatzeko dirulaguntzen deialdia egin da. Dirulaguntza 11 enpresei eman zaie. Horrez gain, ordezkoko bost geratu dira, eta hiru baztertu egin dira, dirulaguntzaren xedea ez zutelako betetzen. Jarraian, enpresa eta erakunde onuradunak zerrendatu dira:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Arabako Birgizarteratze Institutua	10.000,00
Euskal Kurturgintza SA	7.900,00
Ardatz Kultur Elkarte	10.000,00
Elkarlanean SL	4.595,00
Ikei Research & Consultancy SA	4.050,00
Agifes Alkarturik, Gipuzkoako Famili eta Eri Psikikoen elkarte	7.840,80
Gizatzen SA	5.050,00
Lavanindu SL	3.750,00
Arazi IKT SL	2.600,00
Leintz Garraioak SL	4.250,00
Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarte	3.123,75
HIESaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordea	7.028,54
Goieneko Koop. E	8.361,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>78.550,00</b>

Dirulaguntza eman zitzaizkien erakundeen artean hiru Bizkaikoak dira, zortzi Gipuzkoakoak eta bi Arabakoak. Jardueraren esparruari dagokionez, aipatu behar da bost zerbitzuen sektorekoak direla, hiru gizarte esku-hartzeko elkarteak dira, bat garraioena eta lauk euskal hizkuntza eta kultura arloko zerbitzuak ematen dituzte. Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 419 emakumerentzat eta 538 gizonentzat



izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

Horrez gain, aurten 6/2019 Errege Dekretua indarrean sartu denez eta horrek 50 langiletik gorako enpresei ekarritako betebeharrak direla medio, Emakundek laguntzen ezohiko deialdia egin du. Deialdi horren bitartez 25 erakunde diruz lagundu dira. Jarraian, enpresa eta erakunde onuradunak zerrendatu dira:

ESKATZAILEA	Dirulaguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Ikertalde Grupo Consultor SA	3.500,00
Ipartek Servicios Informaticos Koop. E	4.250,00
Novia Salcedo Fundazioa	6.582,40
Aurman SA	2.950,00
Plastigaur SA	5.750,00
Arabako Nuevo Futuro - Familia-eremua Kendu Zaien Umeentzako Elkarte Nazionala	6.004,40
Ingartek Consulting SL	4.500,00
Ikaslan, Gipuzkoako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Zuzendarien Elkarte	6.582,40
Maristas San Jose ikastetxea	3.950,00
Orioko Herri Ikastola Kooperatiba Elkarte	6.079,04
Orereta Ikastola Koop. E	6.330,72
Biele SA	7.250,00

Galemys SL	2.175,00
Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa	5.614,40
Salva Industrial SL	6.750,00
Asesoramiento y Gestión Asistencial SL	3.600,00
Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea UZEI	8.663,20
Athlon Koop. E	3.082,32
Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola Koop. E	6.171,00
Mendibil elkarte pedagogikoa	7.200,00
Zubi Zaharra Koop. E	8.565,60
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua	10.000,00
Sistemas y Tratamientos Automaticos SL	3.910,00
EIDE Heziketa eta Garapenerako Nazioarteko Ikastetxeak	3.075,00
Industrias Técnicas de la Espuma SL	3.604,50
<b>GUZTIRA</b>	<b>136.139,98</b>

Dirulaguntza eman zitzaien erakundeen artetik hamar Bizkaikoak dira, hamaika Gipuzkoakoak eta lau Arabakoak. Jardueren esparruari dagokionez, nabarmendu behar da gehienak zerbitzuen sektorekoak direla, tartean prestakuntzari lotutako hamar enpresa daude, laguntza sozialeko bi, aholkularitza eta enpresen zerbitzuetan aritzen diren sei, kirol-zerbitzuetako bat eta elkargo profesional bat. Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 755 emakumerentzat eta 868 gizonentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.



### 3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeak

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte-eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere.

Gero, 2014an 11/2014 Dekretu berria onartu zen, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz.

Dekretu berriaren arabera, 2019an 5 erakunde aitortu dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa. Lau enpresaren eskariak ezetsi dira, eta erakunde batek, berriz, atzera egin du. Honako hauek dira:

#### AITORTUAK

1. Do's Formación SL
2. CPES Fernando, BHI (Ferlan, 2014, SL)
3. Harrobia Lanbide Ikastola
4. Ascensores Muguerza SA
5. Ingurumena Advanced Technologies SL

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortutako 105 erakunde daude.

### 3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Aurten enpresek hiru eskaera egin dituzte, eta hiruak homologatu dira, Prospektiker SA, Instituto Europeo de Prospectiva y Estrategia, HEZI2DE kooperatiba elkarte txikia, eta Belén Forniés Bello.

Bestalde, homologatutako kontsultoreen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

Abenduaren 31n 26 aholkularitza-enpresa daude homologatuta enpresei berdintasun-diagnostiko eta planak egiten laguntzeko.

### 3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren erakundearen sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakundeek osatutako sare bat da, 2018ko martxoaren 19an eratu dena formalki, eraikitze-prozesuan urte eta erdi eman ondoren.

BAI Sareak justizia sozialean oinarritutako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Esperientziak, jakintzak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abar partekatzea.
- Neurriak garatzen, tresnak egiten eta ekimen partekatuetan laguntzea.
- Sarea barnean (erakundeetan) eta kanpoan (gizartean) ezagutzera ematea. Sarea ekintza-eredutzat eta iritzia emateko erreferentetzat hartzen da (gai profesionaletan, enpresa-arloko gaietan, gai ekonomikoetan eta gai sozialean, besteak beste).
- Enpresaren eta gizartearen errealitatea aldatzea, lan-eremuko genero-arrakalak murriztuz eta berdintasuna nahiz justizia soziala erakundearen balio estrategikoak izan daitezen bultzatuz.



Bat etoriz «Emakumeak ahalduzko NBE EMAKUMEAK erakundeak enpresei proposatutako printzipioen» lanarekin eta EAeko errealitatera egokituta, BAI SAREA osatzen duten erakundeek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea erakundearen zuzendaritzatik.
2. Emakumeak eta gizonak modu bidezkoan tratatzea lanean.
3. Giza eskubideak eta bereizkeriarik eza errespetatzea eta aldeztea.
4. Langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea zaintzea.
5. Emakumeen lanbide-garapena sustatzea.
6. Enpresa-garapeneko praktikak, erosketak eta marketina egitea berdintasunaren alde.
7. Ingurune soziolaboralean berdintasuna sustatzea; eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako aurrerapenak ebaluatzea eta hedatzea.

Honako hauek dira gaur egun BAI Sarea osatzen duten Lankidetzak Erakundeak:

1. AGINTZARI
2. ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA KOOP. E
3. BIDEGINTZA GEK GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA
4. BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEA
5. GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO MARGOTU ELKARTEA
6. ZABALTZEN GIZARTERATZE-ELKARTEA
7. T4 ELKARTEA
8. ASPACE BIZKAIA (GARUNEN PARALISIA DUTEN PERTSONEN LAGUNTZEKO BIZKAIKO ELKARTEA)
9. AUTOBUSES CUADRA SA
10. AUTOBUSES LA GIPUZKOANA SL
11. AUTOBUSES LA UNIÓN SA
12. APNABI- AUTISMO BIZKAIA
13. AVIFES (GAIXOTASUN MENTALAK DITUZTEN PERTSONEN ETA EUREN SENITARTEKOEN BIZKAIKO ELKARTEA)
14. AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS SL
15. BAHÍA DE BIZKAIA GAS SL



Bai Sarea.

16. BERRIA TALDEA
17. BIDE LAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK
18. BIHARKO
19. BULTZ LAN
20. BIZKAIKO CARITAS
21. CDE
22. BILBOKO LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA
23. GURUTZE GORRIAREN ZENTRO SOZIOSANITARIOA
24. DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAU
25. COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA
26. CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL
27. CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL
28. ARABAKO GURUTZE GORRIA



- 29. CAREERS&JOBS SL
- 30. EDE FUNDAZIOA
- 31. EJIE SA
- 32. ELHUYAR-ZUBIZE SLU
- 33. EMUN, KOOP. E
- 34. EUSKO TREN SA
- 35. IZAN FUNDAZIOA
- 36. LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA
- 37. NUEVO FUTURO FUNDAZIOA (GIPUZKOA)
- 38. GAZTAROA SARTU KOOPERATIBA
- 39. GOIZTIRI
- 40. GUGGENHEIM BILBAO

- 41. IHOBE SA
- 42. INGETEAM POWER TECHNOLOGY  
(TECHNOLOGY ETA ELECTRONICS EKOIZPEN-UNITATEAK)
- 43. IPACE SL
- 44. ITELAZPI SA
- 45. IZENPE SA
- 46. JURITECNIA SL
- 47. KIROL MANAGEMENT
- 48. LABORAL KUTXA
- 49. METRO BILBAO SA
- 50. MU ENPRESAGINTZA KOOP. E
- 51. MURGIBE
- 52. ORONA KOOP. E
- 53. ORTZADAR SL
- 54. PESA
- 55. PROSPEKTIKER SA
- 56. SARTU ARABA
- 57. SATSE - ERIZAINTZA SINDIKATUA
- 58. SUSPERGINTZA ELKARTEA
- 59. TALLER USOA LANTEGIA SAU
- 60. URAREN EUSKAL AGENTZIA
- 61. VIRTUALWARE 2007 SA
- 62. ZUBIETXE
- 63. ZUBIZARRETA CONSULTING



*Kudeaketa Aurreratuko Europako Astea.*

Sareak hainbat mailatan lan egiten du: osoko bileretan, batzarretan, talde espezifikoetan egiten den lanean gaiaren arabera eta truke birtuala eginez blog baten bitartez.

### 3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Enpresa eta erakunde txikietan emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostiko eta plana egiteko metodologiari buruzko lantegia eskaini zaie enpresei, kudeaketa aurreratuaren esparruan, martxoaren 28an eta ekainaren 4an Gasteizen.



EUSKALIT – Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioarekin sinatutako kolaborazio-hitzarmenaren barruan, hainbat jarduketa bateratu bideratu dira hitzarmena betetzeko, besteak beste, kudeaketan berdintasun-jardunbide egokien bilatzailea elikatzen enpresa praktikak identifikatzea <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/> eta horien aukeraketa bat aurkeztea Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Europako Asteantolatuak jardunaldi bateratu batean.

### 3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena aldezteko sektore pribatuan

Atal honetan, Emakundek 2019an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren (3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa).

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, jarduketa-mota hauek egin dira:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.

#### Zuzeneko arretarako bulegoen jardura (aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza)

Emakundek zuzeneko arreta emateko bulegoak dauzka EAEko hiru hiriburuetan. Hala, arreta hobea eskaini diezaike herritarrei. Bulegootan, aurrez aurreko aholkuak emateaz gain, telefonozko kontsultei ere erantzuten diete, Emakunden herritarren berdintasun-eskubideen defentsaren arlorako dauden langileek.

2019an zehar, guztira, 255 zerbitzu eman dira herritarren arretarako bulegoetan. Gehienak, lan-arloari buruzkoak izan dira, eta, zehazki, erdiak Familia-etxeko zerbitzuari buruzkoak. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak arreta pertsonalizatua ematen die familia-etxeko zerbitzuko langileei eta enplegatzaileei. Hala, familia-etxeko zerbitzuko langileek, emakumeak gehienak, lan-harremanetan tratatu zuzena jasotzea zaindu nahi da.

Azkenik, 49 aholku-jardura egin dira genero-indarkeriaren gainean, eta beste 45 banantze- eta dibortzio-prozeduretan, Emakunderen eskumen-arlokoak izan ez arren, askotan jasotzen baitira horien gaineko kontsultak. Gainera, ugaritu egin dira arazo ekonomikoak, lan-arazoak eta etxebizitza-arazoak dituzten emakumeen aholku-eskaerak.

Diskriminatua sentitu zara lanean? Sexu jazarpena edota jazarpen sexista jasan dituzu? Haurdun egoteagatik kaleratu zaituzte?...

ERABILI DISKRIMINAZIO EGOEREN AURREKO DEFENSA ZERBITZUA  
945 016 550



EMAKUNDE  
HERRITARRIEN OSO BEREIZKERIA  
POSTULAZIO JARDURA DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

www.emakunde.euskadi.eus

¿Te has sentido discriminada en el trabajo? ¿Has sufrido acoso sexual y/o sexista? ¿Te han despedido por estar embarazada?...

ACUDE AL SERVICIO DE DEFENSA ANTE CASOS DE DISCRIMINACIÓN  
945 016 550



EMAKUNDE  
HERRITARRIEN OSO BEREIZKERIA  
POSTULAZIO JARDURA DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

www.emakunde.euskadi.eus

Diskriminazio egoeren aurreko Defentsa Zerbitzua

### Aurretiko azterlana eta kexa-prozedurak behar dituzten kontsultak

Aurretiko azterlana eta kexa-prozedurak eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak guztira 131 dira, eta horietatik 66 kontsultak izan dira (% 50,4), 65 kexak (% 49,6).

Prozedura horietako gehienak lan-arlokoak dira (% 45), bigarren arlo nagusia komunikabideak eta publizitatea izan da (% 24), % 16 beste gai batzuei (gehienbat zerbitzuei) buruzkoak izan dira, eta, azkenik, kirol-arlokoak, % 5. Lan-arlokoetatik gehienak amatasun-, edoskitze- eta familia eta lan-bizitzaren kontziliazio-eskubideari buruzkoak izan dira.

## 3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordez generozeginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun partekatu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonei dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Nahitaez sentsibilizatu behar da gizartea oro har, baita gizartearengan berdintasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko behararen inguruan eragiten duten profesional, gizarte-eragile eta bestelako erakundeak ere. Hori dela eta, Emakunderen zereginetako bat da gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, berdintasunerako Emakunde saria eta eztabaida-taldeetan eta komunikabideetan etengabe parte hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.



*Nahiko programa.*



### 3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan, eskola-egutegiaren arabera lan egiten da; beraz, 2019ko datuak bi ikasturtetan banatzen dira: 2018-2019 eta 2019-2020.

2018-2019 ikasturtean, 43 ikastetxek hartu dute parte; ikastetxe horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie Hezkuntza Sailarekin batera egindako deialdian, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako gida-planaren esparruan. Ikastetxe horietan 2.970 neska eta 3.269 mutil izan zituzten 2018-2019 ikasturtean, eta zifra horiek honako hauek izan ziren 2019-2020 ikasturtean: 2.745 neska eta 2.883 mutil.



Nahiko programa.

2019an, honako hauek izan dira jarduketa nabarmenenak ikasturtean zehar:

- 3 prestakuntza-jardunaldi orokor egin dira, programan parte hartzen duten irakasle guztiei zuzenduak; horietan, programaren garapenaren kontu orokorren berri emateaz gainera, hainbat gai aztertu dira, ikasgelako lanarekin lotuak, berdintasunetik; guztira 197 emakumezko irakaslek eta 33 gizezko irakaslek hartu dute parte:
  - V. Jardunaldi Orokorra, urtarrilaren 17an egin zena; Mapi Urresti Ortizek hartu zuen parte «*Psicomotricidad para trabajar las emociones y las relaciones desde la perspectiva de la igualdad*» hitzaldiarekin, baita Andrea Momoitio San Martínek ere, «*Uso coeducativo de los medios de comunicación en los centros escolares*». 72 emakume eta 17 gizon bertaratu ziren.
  - VI. Jardunaldi Orokorra, martxoaren 22an egin zena; bertan izan zen Bea Ugarte Maiztegi, «*Identidades, relaciones y convivencia en el marco del II plan de coeducación para el sistema educativo vasco*» hitzaldiarekin; bigarren mintzaldia Amelia Barquín Lópezek eskaini zuen, «*Interculturalidad en la escuela desde el punto de vista de la coeducación y la igualdad de mujeres y hombres*» izenburupean. 54 emakume eta 10 gizon bertaratu ziren.
  - I. Jardunaldi Orokorra irailaren 8an egin zen, eta Maria de Mar Garcia-Calventek hartu zuen parte, «*La educación para el cuidado, para compartir los cuidados y para la corresponsabilidad en la base de la coeducación*» mintzaldiarekin; Luixa Reizabal Arruabarrena ere bertan izan zen, eta «*Coeducación: observar, identificar aspectos sexistas y hacer cambios para la igualdad*» izenburua duen mintzaldia eskaini zuen. 71 emakume eta 6 gizon bertaratu ziren.
- 18 mintegi egin dira hiru hilean behin. Mintegiotan berriazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak probatu dira eta aurreko hiruhilekoko



esperientzia ebaluatu da. Mintegietan 219 emakumezko irakaslek eta 63 gizonezko irakaslek hartu dute parte guztira.

- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.
- 2019-2021 aldian, Haur Hezkuntzako 3-6 urteko tartean plan pilotu bat ezartzeko proposamena egingo da. 2019an zehar berriazko deialdi bat egin da Nahiko! 2019-2021 egitasmoan izena eman duten ikastetxeen artean, haur hezkuntzako etapa baldin badute, talde pilotu bat sortzeko, metodologia parte hartzailearen bitartez egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko.

### 3.4.2. Beldur Barik programa

2009. urtean hasi zenez geroztik, programa finkatu eta hedatu egin da eta Emakundek, 2013. urtean, bere gain hartu zuen programaren kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren aurpegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun- eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.

Erakundearteko programa bat denez, kudeaketa egiteko jarraipena eman zaio lankidetzaz hitzarmenari foru aldundi bakoitzarekin, Hezkuntza Sailarekin, Gazteria Zuzendaritzarekin, EITBrekin eta UPV/EHUREkin.

Bestalde, 2019an BELDUR BARIK talde motorra berriz ere martxan jarri da; programa bultzatzen kolaboratzen du eta Emakundeko, udaletako eta foru-erakundeetako berdintasun teknikariek osatzen dute.

Horrez gain, edizio honetan EITBren inplikazioa handiagoa izateko ahalegina egin da; horretarako, bilera bat egin zen erakundeko teknikarien eta hainbat arlotako arduradunen artean (programazio zuzendariak eta proiektu eta sareetako zuzendariak).

Beldur Barik lehiaketaren 2019ko edizioan hainbat hobekuntza txertatu dira parte hartzeko oinarrietan, garai berrietara moldatze aldera. 58 udalerrik, kuadrillek eta mankomunitatek hartu dute parte, eta 392 lan aurkeztu dira; horietatik 301 onartu dira lehiaketan, eta guztira 2.294 nerabek hartu dute parte (% 58 neskak, % 35



Programa Beldur Barik.



mutilak eta % 4 beste batzuk). Topaketa Bilbon ospatu zen, azaroaren 23an, eta tailerretan 84 parte hartzaile izan ziren; guztira 210 lagun elkartu ziren sariak banatzeko ekitaldian.

Beldur Barik Jaiak berriazko kanpaina aisialdi eta jaien testuinguruetan sexu erasoak saihesteko kanpaina da, eta 80 udalerrik eta kuadrillek hartu dute parte; hainbat material eskatu dute.

Horrez gain, 2019ko urrian Emakundek BELDUR BARIK programaren urteko txosten eta memorietan (2010-2018) bildutako informazioaren laburpena eskatu zuen, programaren 10 urteko ibilbidearen ebaluazioa egin aurreko urrats modura, 2020an egin nahi baita foru aldundien kolaborazioarekin. Ebaluazio aurreko eta laburpen-lan honen barruan, Emakundek kontraste-saio bat egin zuen Bilbon, BELDUR BARIK programaren ibilbide luzean zehar gako izan diren eragileekin, hain zuzen ere programaren analisi elementuak identifikatzeko, kudeaketa-sistema eta egiturak ebaluatzeko eta gomendioen zerrenda osatzeko.

### 3.4.3 Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezzen sustatzea da. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

2019. urtean, honako jarduera hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

**Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea administratzea ([www.euskadi.eus/gizonduz](http://www.euskadi.eus/gizonduz)).** Bertan egitasmoaren inguruko informazio zabala dago, hainbat euskarritan, baita bestelako atalak ere, elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietara loturak, etab. 2019an guztira 5.630 bisita jaso ditu.

**Sare sozialetan parte hartzea.** Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldian behin eguneratu egin dira. Nabarmentzekoa da Facebooken 2019an 5.102 jarraitzaile izan genituela (% 58 gizonak), 1.907 Twitterren eta 1.653 ikustaldi YouTube.

**Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa.** 2019an jarri zen abian programa honen hamaikagarren edizioa. Zenbait ikastaroz osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira eta beste batzuk, berriz, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionaletik, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola, osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa, eta abar. 2019an, 445 aurrez aurreko prestakuntza-ordu eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 12.062 pertsonak parte hartu dute, honela banatuta: 7.101 gizon eta 4.853 emakume, ez-bitar gisa identifikatu diren 50 pertsona eta gai horri erantzun ez dioten 59 pertsona. Bestalde, 2019an, 82 pertsonak amaitu dute online sentsibilizazio-ikastaroa (59 gizon eta 23 emakume). Azkenik, hainbat erakunderekin lankidetzan (IVAP, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta EHU) maskulinitatei buruzko online ikastaroaren 8 edizio egin dira. Guztira, ikastaroa 386 lagunek gainditu dute (135 gizon, 250 emakume eta ez bitar modura identifikatzen den pertsona bat).



«**Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua**. Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziak eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2019. urtean zehar, proiektua eta horren osagaiak frogatu dituzte 6 ikastetxetan. Aipatutako prozesuan, honako hauek parte hartu dute: Badaia BHI Nanclares, Erretereriako Don Bosco LHII, Bilboko Lasalle ikastetxea, Gasteizko ADSSIS Fundazioa, Lauro Ikastola eta Hernaniko Urumea BHI. Irakasleentzako ikastaroetan 93 lagunek parte hartu dute: 37 emakumek eta 56 gizonak. Ikasleentzako ikastaroetan, aldiz, 415 lagunek: 67 emakumek eta 348 gizonak. 96 prestakuntza-ordu eman dira guztira ikasleekin, 25 taldetara iritsi da, eta horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko.

**Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta graduondokoen eta IVAPen ikastaroen publizitatea egitea, baita Berdintasunerako Gunearena ere.**

Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak horien publizitatea egin du Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

**Gizon politikoen taldeak.** 2017tik udal eremuan eta 2018tik Eusko Jaurlaritzaren esparruan, hainbat prozesu garatu dira berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako gizon politikarien taldeak eratzeko. Prestakuntza, hausnarketa eta trakerako eremu horietan, gizon horiek beren

eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortu nahi da eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzea. 2019an hainbat prestakuntza-bilera egin dira bai Eusko Jaurlaritzako kargudunen talde batekin, bai EUDELeke berdintasunaren aldeko gizon hautetsiez osatutako talde eragile batekin; horrez gain, orain arte egindako lana azaltzeko bideo bat ere egin da.

«**Gizonok esan eta egin» kanpaina**. EAEko gizonak beren eguneroko bizitzan berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekintza zehatzekin konpromisoa hartzea helburu duen kanpaina hori diseinatu eta hedatu dugu. Kanpaina horren euskarria aplikazio informatiko bat da, interesa



Gazteak Berdintasunean 2.0



duten gizonei informazioa eta baliabideak ematen dizkiena beren konpromisoak identifikatzen eta praktikan jartzen laguntzeko. Era berean, konpromiso hori betetzen ote den jarraipena egiteko sistema bat jartzen du haien eskura.

**Beste sentsibilizazio-jarduera batzuk.** Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabidetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauetan:



#InvolveMen Mintegia.

- Berdintasun Erakunde Nazioarteko Topaketa, Frantziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseiluak –HCEK– sustatua, Parisen, urtarrilaren 21ean. Bertan, Gizonduz ekimenaren aurkezpen orokorra egin zen.
- «VII Coloquio internacional de estudios sobre hombres y masculinidades», San Josen –Costa Rican–, abuztuaren 28an, 29an, 30ean eta 31n eta abuztuaren 1ean. Bertan, «Gizonduz, una experiencia en el trabajo con hombres en el País Vasco» mintzaldia eta gizonentzako «Taller antisexista antirrumores» lantegia egin ziren.
- «#InvolveMen: Redefining masculinities» mintegia, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak –CMREK– antolatua Bruselan azaroaren 19an, non gizoneko politikariekin egindako lana aurkeztu baitzen.
- Topaketa azaroaren 25ean Montevideon –Uruguain–, maskulinitateak lantzen dituzten gizarte zibileko erakundeekin eta erakunde feministetako ordezkari batzuekin.
- «Masculinidades y Políticas Públicas para la igualdad de género» mintegia egin zen azaroaren 27an Montevideon. Bertan, «Marco conceptual en torno a las masculinidades» eta «Masculinidad y Políticas Públicas» mintzaldiak aurkeztu ziren.
- Montevideoko Intendentziaren Genero Berdintasunaren aldeko Taldeen topaketan parte hartu zen azaroaren 28an.
- «Masculinidades e Igualdad: estrategias, redes y desafíos» jardunaldia, Red Men Engage Iberia sareak antolatua Lisboan, abenduaren 13an; ekimen horretan, Portugalen eta Espainian gizon eta gazteekin egindako berdintasun-programen esperientziei buruzko mahaian esku hartu zen.



### 3.4.4. Kanpainak

#### Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8ko kanpainak, Emakumeen Nazioarteko Eguneakoak, Emakundek 2019an diseinatu du Garapen Jasangarrirako Helburuetako 5.ari erreferentzia eginez: «*genero-berdintasuna eta emakume eta neskatoen ahalduntzea*». Kanpainak, horrenbestez, emakume eta neskatoen ahalduntzeari erreparatu zion, eta etorkizuna genero-mugarik gabe, libreki eta berdintasunean aukeratzeko eskubidean nabarmenduz.

Lau neska gazte izan ziren kanpainaren protagonista, «*Erabakitzen dudana izango naiz*» lemapean, gizarteari dei eginez eta gogoraziz haien eskubideak libreki baliatu ahal izatea bermatzeko betebeharra duela. Neskekin batera historian erreferente izan diren emakumeen irudiak agertu ziren, esaterako Marie Curie zientzialaria, Clara Campoamor idazle eta politikaria, Frida Kahlo pintorea eta María Antonia Uzcudun, erraketista, Anoetako txikita ezizenez ezagunagoa dena. Berdintasunera iristeko bidean aurretik lan egin duten emakumeak omentzeaz gain, irudiek gogorazten digute beharrezkoa dela erreferenteak edukitzea, eta, horrenbestez, emakumeak ikusarazi eta balioetsi behar direla, hurrengo belaunaldientzat jarraipen-eredu bihur daitezela.

Kanpainak otsailaren 26tik martxoaren 12ra iraun zuen eta kartelak, irratirako oharak, bannerrak eta bideo bat sortu ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Horrez gain, kartelak bidali dira erakundeetara, ikastetxetara, osasun zentroetara, elkarteetara, enpresetara, kultura-etxeetara, liburutegietara, eta abar. Kanpaina urte osoan zehar mantendu zen irrati eta sare sozialetan, martxoaren 8aren erreferentziarik gabe.

#### Eskola-agenda

2019an, eskola-agenda (2019-2020) prestatu da; agendak berdintasunarekin eta pertsona ororen errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Agenda horren bidez (EAEko DBHko 1. eta 2. mailako ikasle guztiei banatu zaie), honako gai hauekin lotutako mezuak zabaltzeko dira:



Martxoaren 8ko Kanpaina.

bizi-proiektuak hautatzeko askatasuna, «*nesken gauzak*» eta «*mutilen gauzak*» daudela markatzen dituzten estereotipoekin amaitzeko beharrezana, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lana partekatua izateko beharrezana, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, baldintza fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzeko beharra, gorputz perfektuen tiranotasuna salatzen dituzten mezuak, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko beharra (neskak ala mutilak izan), neska eta mutilen artean adiskidetasuna partekatze beharra, emakumeen jakintzak ezagutzea belaunaldi berrien eredu izateko etab.



### Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, kontzientziazio-kanpaina bat egiten da urtero Berdinsarearen esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013tik, Emakundek kanpaina hau sustatzeko eta kudeatzeko ardura du; horretarako, zuzenean sustatzen du diseinua, garapena eta ebaluazioa, hiru foru-aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza Sailarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EITBrekin lankidetzan.

Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan, Beldur Barik programa garatzen da; gazteei zuzenduta dago. Programa honen helburu nagusia da emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea eta, horretarako, neskei indarkeria sexista identifikatzeko eta hari aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea eta mutil gazteekin beren jarrera sexistak prebenitzeko lan egitea eta beren eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko rol aktiboa hartzera animatzea.

Beldur Bariken barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

Edizio honetan 58 udalerrri, kuadrilla eta mankomunitatek hartu dute parte, eta 392 lan aurkeztu dira. Era berean, tokian tokiko lehiaketa ugari ere antolatu dira. Edizio honetan, nesken ahalduntzea eta estereotipoak dira landutako gai nagusiak, baita indarkeria adierazpen ugariren aurreko erantzun kolektiboa ere. Hain zuzen ere, bikotearen testuinguruan indarkeria psikologikoa nabarmentzen dute (kontrola, jeloskortasuna, mehatxuak). Horrez gain, 2016tik gertatzen den bezalaxe, aurkeztutako lanetan sexu-indarkeriaren salaketak urtez urte areagotzen dira.

Beldur Barik lehiaketaren helburua da gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoek eta neskatilek hartzen dituzten

jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak onartzea, balioztatzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatutako jarrerak eta jokabideak. Sariak azaroaren 23an eman ziren 2019ko Beldur Barik Topaketan, Bilbon. Edizio honetan hainbat hobekuntza txertatu dira oinarrietan, ikus-entzunezko lanetarako zein ikus-entzunezkoak ez diren lanetarako sariak ezarri eta kategoriak hiru adin tartetan banatuz, gazteen bilakaera-aldiekin bat etorri. Honako hauek izan dira lan irabazleak: lehen kategorian (12tik 13 urtera), Ondarroatik bidalitako «Menstruazioa bai!» bideoa eta Bilboko «Mundu morearen alde» olerkia. Bigarren kategorian (14tik 18



*Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna.*



urtera) irabazleak Gasteiztik igorritako «*Isplua/Espejo*» bideoa eta Aretxabaletako «*Letraz*» kartela izan ziren. Hirugarren kategorian (19tik 26 urtera), ikus-entzunezko onenari saria Gatikara joan da, «*Ya te pillaré*» lanarekin, eta Gasteizko «*Betaurreko feministak*» kartelak ere saria lortu du. Ikus-entzunezko ekoizpen onenari saria Bilboko «*Tú contratas maltrato*» lanak irabazi du.

Beldur Barik programaren 2019ko lan-estrategiari dagokionez, udalek tokiko ekimenak gara ditzaten sustatzen jarraitu da. Hori dela-eta, programaren aldetik aholkularitza eta laguntza sendotu dira parte hartzen duten udalerrietan tokiko

hausnarketa-prozesuak eta gazteak mugiarazteko prozesuak diseinatu eta garatzeko orduan. Gainera, jarraitu da ikastetxeen parte-hartzeari bidea ematen, bai eta emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko lankidetzari ere.

Bestalde, Emakunderen sare sozialetatik, kanpaina bat jarri da abian lelo honekin: #BaiEsatenDiot indarkeria sexistarik gabeko gizarte bat eraikitzeari. Aste horretan bertan, iragarki-kanpaina bat jarri zen abian EITBko irratietan lelo berarekin.

### 3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Urriaren 9tik abenduaren 13ra bitartean abiarazi zuen Emakundek Berdintasunerako 2019 Foroa: erakunde publiko eta pribatuentzako eremu komun horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte, hartara EAEn alor horretan egiten den lana ikusarazteko.

Aurten foroaren XVI. edizioa ospatu da, Emakundek martxoaren 8aren harira sortutako «*Erabakitzen dudana izango naiz*» leloarekin. Helburu nagusietako bat berdintasunaren mezua pertsona eta herri gehiagotara helaraztea izan da; horregatik, aurten ere unitate ibiltari bat izan dugu, foroaren mezua gehiago ikusarazteko Euskal Autonomia Erkidegoko herri askotan.

Horrez gain, foroak presentzia izan zuen Gabonetako Umeen Parkean, Barakaldon, Bilbao Exhibition Centre zentroan, 2019ko abenduaren 18tik 2020ko urtarrilaren 5era.

Lehen egunean, autobusaren alboan aurkezpen bat egin da komunikabideen aurrean: bertan hainbat izen publiko nabarmen egon dira, eta horiek ere bisita egin digute. Denbora tarte horretan milaka pertsona gerturatu dira unitate mugikorrera, hain zuzen ere 7.644 pertsona. Hainbat jarduera ludiko antolatu dira autobusaren barrualdean zein kanpoan prestatutako espazioan.



*Beldur Barik lehiaketa.*





*Berdintasunerako gunea.*

Gainera, zenbait erakundek, elkartek, enpresak eta udalek eskatuta, autobusa horiek antolatutako jarduera batzuen topaleku izan da, eta, aldi berean, herritarrekiko hurbiltasuna sustatu da. Bestalde, unitate mugikorra eskola-ikaskela bezala erabili da; bertan, bi berdintasun-teknikarik Nahiko eta Beldur Barik programen barnean sartutako zenbait lantegi eman dituzte, besteak beste.

2019. urtean 98 ekintza planifikatu dira, guztira. Halaber, foroak guztira 133 jarduera bildu ditu. Era berean, 9.381 emakumek eta 6.721 gizonek parte hartu dute autobus barruan zein kanpoan antolatutako jardueretan.

### ‘Emakunde’ aldizkaria argitaratzea

Emakunde aldizkarian informazioa eta elkarrizketak argitaratzen jarraitu dugu. Aldizkariko harpidedunek puntualki newsletterra jaso dute haien posta elektronikoetan. Edukiek, bidenabar, hedapen zabala izaten dute, sare sozialen laguntzari esker.

Interakzioa da formatu digitalaren beste lorpenetako bat, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.

Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai.

### 3.4.6. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

2019an, guztira, hedabideei 30 prentsa-ohar bidali eta prentsaurrekotarako 10 deialdi egin zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendaritzak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- **Nuevas formas** (2019-03-08) Hainbat komunikabideetan.
- **Mujeres deportistas. Ellas lo tienen claro. Y ¿el resto?** (2019-10-5) Diario vasco.
- **Los derechos no se cuestionan. Ni un paso atrás.** (2019-10-25) Hainbat hedabide.
- **Egin klika. Aukeratu berdintasuna.** Berria (2019-05-26).



Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskari guztiei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan-egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzerakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetariko eta nagusietariko bat.

### 3.4.7. Berdintasunaren Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen –publiko nahiz pribatuen– jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.

2019an, 2018ko Emakunde Sariaren irabazleari saria eman zaio, kasu honetan bi masterri: Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Masterra: Berdintasun Agenteak, UPV/EHUkoa, eta Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra, Deustuko Unibertsitatekoa, berdintasun-politiken eremuan eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzearen eremuan profesionalizazio kualifikatuari egiten dioten ekarpenarengatik.

Bestalde, Emakunde Sariaren epaimahaiak Emakunde 2019 Sarirako hautagaitza hautatu zuen, Conny Carranza Castrok lortu zuena, 20 urte baino gehiagoko ekarpena egin baitu, dinamizatzeko eta mugiarazteko gaitasun handiko prozesuen

bitartez, emakumeen ahalduntze feminista lortzeko, bereziki nabarmenduz zaugarritasun handiagoko egoeretan daudenak, emakume migratuen kasua, esaterako.

Horrez gain, Epaimahaiak beste emakume batzuegana ere zabaldu nahi izan zuen aipamena, beste ikuspegi eta esparru batzuetatik lanean ari direnak beste lurralde batzuetako egoerak euskal errealitatearekin konektatzeko, baita beste diskriminazio faktore batzuen eraginpean dauden emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzen lanean ari diren emakumeak ere.



2018ko Emakunde Saria emateko ekitaldia.



### 3.4.8. Emakunderen webgunea eta sare sozialak

Emakunderen webgunea herritarrentzako zerbitzuen parametro zorrotzak eskainiz finkatu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukiaren kontsulta gai-arlo

batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, baita sare sozialekin, Irekiarekin, Blogekin, eta abarrekin interakzioan aritzeko ere.

Mantendu eta indartu egin da 2019an, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua; presentzia handiagoa lortu da Facebooken eta Twitterren, eta horrek esan nahi du igoera esanguratsua egon dela jarraitzaile kopuruari dagokionez; Instagramen aldeko apustua ere egin da. Twitterren 8.534 jarraitzaile ditu, Facebooken 9.264, eta Instagramen 2.936.

Gizonduz ekimenerako kontu bat ere badu Emakundek Facebooken.

Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTubean.

Azkenik, Emakunderi buruzko albisteak eta eguneratzeak agertu dira Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian.


### 3.4.9. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan

Emakundeko ordezkari gorenak askotariko erakunde, elkarte, enpresa eta entitateek antolatutako jarduera ugaritan parte hartu du. Gizarteko esparru guztietan, berdintasunaren aldeko lana laguntzeko erakundeak duen beste modu bat da hori.

Emakundeko zuzendaria, Izaskun Landaida, horrelako hainbat topaketataratara bertaratu da 2019an. Hona hemen batzuk:

#### Eusko Legebiltzarreko jarduerak:

- Munduko Populazioaren Egoerari buruzko 2019ko txostenarena (UNFPA) aurkezpenean parte hartzea, Luis Moraren eskutik, Gasteizen Eusko Legebiltzarren egoitzan egindakoa.



“Emakunderen sare sozialak”.



- Eusko Legebiltzarrak Gasteizen antolatutako «*Erabakitzen dudana izango naiz*» gosari-solasaldia irekitzea.
  - Arartekoa sortu zela 30. urteurrena ospatzeko ekitaldian bertaratzea. Hitzaldia: «*El naufragio de los derechos humanos*» Helena Malenok eskainitakoa Bilbon.
- Eusko Jaurlaritzarekiko jarduerak:**
- Hitzaldia Agenda 2030 eta garapen jasangarriko helburuen ikastaroan. Gure politika publikoak eraginkorrago bihurtzea, Lehendakartzako Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiak antolatuta eta Gasteizen ospatutakoa.
  - Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuria 2018ko Saria emateko ekitaldia; Lehendakartzaren egoitzan egin da, Gasteizen.
  - Lehendakartzak antolatutako Giza eskubideen René Cassin 2019 Sarian epaimahaiaren parte hartzea eta sari banaketan bertaratzea, Gasteizen.
  - Familia Nekazaritzari buruzko VI. Biltzarrean parte hartzea, Munduko Landagune Foroak antolatuta eta Erandion ospatutakoa.
  - «*Kudeaketa aurreratua Eusko Jaurlaritzan*» ekitaldian bertaratzea, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak antolatutakoa, eta Emakunde saria ematea, Gasteizen.
  - Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko 2019ko Egunaren ospakizun ekitaldian bertaratzea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak antolatutakoa, Durangon.
  - Jardunaldien inaugurazioa: Emakumeen ekintzailtza lehen sektorean, Hernanin ELIKA, NEIKER eta HAZIK antolatutakoa.
  - «*Mugikortasuna genero-ikuspegitik*» jardunaldia irekitzea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak antolatutakoa, Bilbon.
  - Joxe Mari Korta Sarien banaketa ekitaldian bertaratzea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak antolatutakoa Gasteizen, Lehendakartzaren egoitzan.
  - Migratorako Euskal Itun Sozialaren aurkezpen ekitaldia, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatuta eta Gasteizen, Lehendakartzaren egoitzan ospatutakoa.
  - Haurren eskubideen konbentzioaren 30. urteurrena ospatzeko ekitaldian bertaratzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatuta eta Gasteizen, Lehendakartzaren egoitzan ospatutakoa.
  - SATEVI aurkezteko prentsaurrekoan parte hartzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatu eta Bilbon ospatu zena.
  - «*Politika fiskala generoaren ikuspegitik*» jardunaldia aurkeztea, Ogasun eta Ekonomia Sailak antolatutakoa; Gasteizen egin zen.
  - Sentsibilizazio jardunaldia aurkeztea: «*Genero ikuspegia duten aurrekontuak: apustu sendoa*», Ogasun eta Ekonomia Sailak antolatutakoa; Gasteizen egin zen.
  - Euskal hezkuntza sistemaren II Hezikidetzaren aurkezpenean bertaratzea, berdintasunaren eta tratu onaren bidean izenekoa, Hezkuntza Sailak antolatutakoa, Bilbon.
  - Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean osasun arloko profesionalentzako jarduketa gida berri baten aurkezpena, Osasun Sailak eta Osakidetzak antolatuta.
  - Emakume kirolarien harreran bertaratzea, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatuta eta Gasteizen egindakoa.



- Gure Artea saria emateko ekitaldia. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatu du eta Gasteizen egin da.
- Euskararen nazioarteko egunaren oroitzapenezko ekitaldia; Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatu du eta Bilbon egin da.
- BIKAIN Euskararen Kalitate-ziurtagirien banaketa ekitaldiaren hamaikagarren edizioa; Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatu du, eta Gasteizen egin da.
- Etxeko Enpleguari buruzko I. Kongresuan bertaratzea, Lan eta Justizia Sailak antolatutakoa, Bilbon.

#### Batzar Nagusiekiko jarduerak:

- Euskal Emakume Hautetsien III. Batzarrean parte hartzea, Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatuta, Gernikako Batzar Etxean egin zen.

